

Berrigara

EVITA

Orkestra Sinfonikoaren
musikal berria



DBHO BATXILERGOAK

AURREMATRIKULA EPEA ZABALIK MAIATZAREN 4tik 18ra.


Plazak daude: 1. mailako Gizarte eta Giza Zientziak adarrean.
2. mailako Gizarte eta Giza Zientziak, eta Natur eta Osasun Zientziak adarretan.

Izen emateko ordutegia: 9:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 18:00etara.

Tokia: Aranzadi ikastolako idazkaritza, San Martin plaza 4. Tf. 943 76 26 76 / 56 76



ARANZADI
IKASTOLA



PARTAIDE
IKASTOLAK



CRISTINA Arruriaga-z/g



AISOR Bidekurutzeta 7



AROA Bidekurutzeta 6




IKUSBI Iraila 5



XAMARTIN Ibargarai 20



GALLASTEGI S. Pedro 15



SUBIJAI Irizar 1



LAKET Barrenkalea 35



ZUBIKUA Barrenkalea 24

Badakizu zer duten berdina
18 jantzidenda hauek?



PRAKAK Burdifiketa



LIDE Bidekurutzeta 19



YAZKI UME Irizar 3



YAZKI GAZTE Ibargarai 8



MUJIKA Barrenkalea



AGIRRE Bidekurutzeta 18



ZATOIA Barrenkalea 4



JAUJA Irizar 3



JANDEN Irizar



“Egunkaria” termometro

Juan Martin Elexpuru / Idazlea

Katalunian katalan hutsezko 7 egunkari daude eta 200.000 ale inguru saltzen dira egunean. A ze inbidia! “El Periódico”, adibidez, oraintxe hasi da katalanezko edizioa ateratzen eta 80.000 ale saltzen ditu lehenengo egunetik.

Euskal Herrian bakarra daukagu, “Egunkaria”, eta 15.000 alera ez da hel-tzen. Bederatzi urte beteta dauzka haurrak, baina ez da asko hazi. Kosta egiten da gizajoa erdarazko papel-to-meen artean aurkitzea.

Eta inork ez du esango produktua itxurosoa ez denik: informazio dezent-e, euskara txukuna, ideologia aldetik zabala. Igandeetako “Egunkariak”, esa-te baterako, ez dio inbidiarik periodiko onenari. Ziur gaude salmenta eta publi-zitatea (dirua, azken batean) zenbaiten erdia balu, egunkari ikusgarri bat ikusi-ko genukeela.

Aitzakia zaharrak ez du gaur balio. Eskola dela, herri aldizkariak direla, jende gehientsuena gauza da euskaraz irakurtzeko.

Baina kontuak ateratzen hasi, eta hotzikara sartzen zaio bati. Zenbat eta zenbat jende dagoen euskaraz eta euskaratik bizi dena gaur egun: irakasle, funtzionario, kulturako langile... Hauek eta bere burua abertzaletzat daukatenez, eskumakoek nahiz ezke-rrekoek, gutxienez asteen pare bat al-diz erosiko balute “Egunkaria”, a zela-kotxe tirada!

Hemen abertzale eta euskalzale ugari, baina periodikoa erosteko or-duan askok “betikoa”, nahiz eta antzi-nako esaerak abisatu “egi gutxi eta gi-zur asko” dakarrela, eta denok jakin

zein den bere bidea: lehen frankista, orain aznarista; erdalzalea eta espainia-zalea beti.

Ez diogu egunkari honi edo horri beren ontasunak ukatuko: herriko in-formazioa, eskelak, publizitatea, etab. Ondo informatuta egotea beti dago on-do. Baina egarria ase nahi duenak au-keria izaten du, kafe bat hartuz, taberna bazterrean bi edo hiru egunkari begira-tzeko.

Baina alperrik izaten da sermoia egiten jardutea. Irakurlea libre da nahi duena erosteko, eta hau edo bestea au-keratzen badu, zerbaitengatik izaten da.

Gure errealitatea hauxe da: euska-razko 15.000 ale. Euskal Herrian sal-tzen diren egunkarien % 3a baino gu-txiago. Sinistua nago hori dela euskal-zaletasunaren benetako temperatura: % 3, eta “Kilometroak” eta honelako egu-nak, berriz, kalentura-egunak direla, gorputzak gaixoardia bezala, anima euskaldunak behar dituenak kontzien-tzia txarraren toxinak garbitzeko. B

“Aitzakia zaharrak ez du gaur balio. Eskola dela, herri aldizkariak direla, jende gehientsuena gauza da euskaraz irakurtzeko”

■ barruan




Pello Zabala

Eguraldi gizona

“Tenporekin fidatzen naiz; gertatzen da oso zaila dela ondorioak ateratzea”

8. orrialdean.



F. Javier Rodrigo

BKEko futbol taldeko kapitaina

“Hamairu urte nituela hasi nintzen alebinetan; uste dut taldea uzteko garaia badudala”

22. orrialdean.



Lucio Retana

Tabernaria

“Tabernak goizeko lauretan itxi beharko liriteke; kalea gehiago girotzea falta da”

29. orrialdean.

orain dela...

BERGARAN GERTATUA

1908. Maiatzaren 12an, Txomin Amasorrain jaio zen. Arrasaten jaio zen baina umetan etorri zen Bergarara. "Argia" eta "Zeruko Argia"ko kolaboratzaile izan zen. Euskaltzale sutsua, gerra ondoren Bergaran gau-eskolak ematen lehenengotakoa izan zen. Antzerki itzulpen ugari egin zituen. 1973ko irailaren 20an hil zen.

EUSKAL HERRIAN GERTATUA

1854. Maiatzaren 7an, Arturo Kanpion euskaltzalea jaio zen Donostian.
1987 Maiatzaren 10ean, Europako parlamentuko hauteskundeak lehenengo aldiz Hego Euskal Herrian.

MUDUAN GERTATUA

1978. Maiatzaren 8an, Reinhold Messner eta Peter Habeler oxigenorik gabe igo ziren Everestera.

zozketak

BONO LOTO

Eguaztena 29

9-11-13-26-34-45 (osag.33/er.2)

Eguakitza 1

4-14-21-23-37-44 (osag.3/er.6)

Astelehena 4

4-5-16-36-37-49 (osag.31/er.0)

Martitzena 5

17-25-36-37-41-46 (osag.23/er.7)

PRIMITIVA

Zapatua 2

16-22-23-24-25-29 (osag.20/er.9)

Domeka 3 Gordo

7-8-21-22-23-43 (osag.26/er.3)

ONCE

Eguena 30: 47.495

Eguakitza 1: 13.696 (K. seriea: 011)

Astelehena 4: 53.153


Martitzena 5: 59.379

BESTE BATZUK

Bedelkar, harakinak: 3.153

Eguraldia

Igeldoko metereologi behatokia



Azken egunotan eguraldiak hobera egin badu ere, zapatu eta domekan hodeiak nagusituko zaizkigu berriz ere. Zapatu gauean eguraldiak okerrera egingo du eta ekaitz arriskua izango da. Domekan hodeiak ugalduz joango dira.

Ilargiaren aldiak



Ilogora: maiatzak 3



Ilbete: maiatzak 11



Ilbehera: maiatzak 19



Ilberri: maiatzak 25

Eguzkia

Domeka, maiatzak 10



Sortu: 06:05



Gorde: 20:22

Temperaturak eta euria Bergaran

Luis Mari Agirre

	max. °C	min. °C	euria l/m ²
Eguaztena 29	13	10	12,8
Eguena 30	12	7	9,2
Eguakitza 1	12	9	13,6
Zapatua 2	12	9	18,6
Domeka 3	13	9	43,8
Astelehena 4	11	9	3,6
Martitzena 5	13	10	0,6

bertako berbak


Juan Martin Elexpuru

Aprill (Aprilla)

Aprila.

- *Aprillian edurra blasta-blasta eitten makiña bat bidar ikusitta garek.*

- *Aprilleko loria urria baiño obia, maietzeko loria bapeza baiño hobia (fruta arbolen lorari buruzko esaera).*



JOSU OKINA

hamaika ikusteko jaio ginen!

Seme-alabak kartara

Estatu Batuetan, lagunduriko ugalketa aukeratu duten bikote antzuen artean, modan jarri da seme-alaben arraza eta hazpegiak aukeratzea. Dohantzan hartutako esperma eta obuluen bitartez, bereaizentzat *prestatutako* enbrioak dituzte gurasoek. Teknika hau erabiltzeak 2,3 milioi pezeta eskatzen dizkie gurasoei. Dena dela, polemika etiko ugari sortu du amerikar herrialdean.

Farmaziak

Eguakitza 8:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 76 11 74

Zapatua 9:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 76 16 87

Domeka 10:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 76 16 87

Astelehena 11:

GUALLAR. S. Antonio 5. Tf. 76 11 05

Martitzena 12:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 76 19 63

Eguaztena 13:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 76 12 15

Eguena 14:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 76 11 74

Ogia

Domeka 10: Ogizun.

Telefonoak

OSASUNA / LARRIALDIK

SOS deiak

DYA

Gurutze Gorria

Larrialdik

Anbulatorioa (txanda)

Anbulantzia

Udaltzaingoa

Ertzaintza

Suhiltzaileak

Osasun Etxea

Arrasateko ospitala

Asepeyo

Pakea

Angiozarko medikua

Antzuolako medikua

GARRIAOK

Euskotren

PESA

Taxiak

RENFE

UDALA

Udaletxea

Udal Artxiboa

Igerilekuak

Kultur Etxea

Liburutegia

Mizpirualde Egoitza

BESTELAKOAK

Epaitegia

Erregistroa

Jardun

Jubilatuaren Etxea

Postetxea

zorion agurrak



Veronica Benitez
Maiatzaren 17an
22 urte. Zorionak!
Etxekoak eta
lagunak.



Maier Amor
Maiatzaren 3an
23 urte. Zorionak!
Soziedadekoak.



Maite Moreno
Maiatzaren 2an
14 urte. Zorionak!
Koadrilakoak.



Izaskun Labaien
Apirilaren 22an
urtebetetzea.
Zorionak!
Aranzadiko DBH 2A.



Maialen Legorburu
Maiatzaren 5an
10 urte. Urte asko-
tarako! Etxekoak.



Onintza Legorburu
Apirilaren 28an
5 urte. Urte askota-
rako! Etxekoak.



Gotzon Jimenez
Maiatzaren 11n
4 urte. Zorionak!
Familiakoak.



Maitane Casas
Maiatzaren 10ean
6 urte. Zorionak!
Gurasoak.



Ander Bolibar
Maiatzaren 8an
9 urte. Zorionak!
Etxekoak.



Uxue Agirre
Maiatzaren 8an
5 urte. Zorionak!
Etxekoak.



Rosa Garcia
Maiatzaren 8an
25 urte. Zorionak!
Familiakoak



Ander Asula
Maiatzaren 14an
urtebete. Zorionak!
Familiakoak.

URTEURRENA

Pilar Gallastegi Ribera

Lehen urteurreneco meza domekan,
maiatzak 10, goizeko 11:30etan, Santa Marinan.

*Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez
aurretik eskerrik asko familiakoan partez.*




Asier Mellado
Maiatzaren 2an
4 urte. Zorionak!
Gurasoak, Leire eta
lagunak.



Irene Alberdi
Maiatzaren 6an
urtebetetzea.
Zorionak!
Koadrilakoak.



Marta Sanchez
Maiatzaren 6an
7 urte. Zorionak!
Gurasoak
eta Sergio.



Victor Sahuillo
Maiatzaren 6an
13 urte. Zorionak!
Etxekoak, A. Miren,
Nuria, Jon, Lierni.



Ainhoa Alonso
Maiatzaren 6an
13 urte. Zorionak!
Familiakoak.



Iker Sanchez
Maiatzaren 7an
15 urte. Zorionak!
Etxekoak.



Sara Martinez
Maiatzaren 10ean
8 urte. Zorionak!
Etxekoak.



Fernando Agirrebeña
Maiatzaren 9an
25 urte. Zorionak!
Etxekoak eta Nuria.



Oihane Larrañaga
Maiatzaren 9an
11 urte. Zorionak!
Familiakoak,
Aitor eta Asier



Monica Aranguren
Maiatzaren 4an
75 urte. Zorionak!
Ander, Iulen eta
etxekoak.



Aitor Lazkano
Maiatzaren 7an
5 urte. Zorionak!
Etxekoak.



Andres Uribe
Maiatzaren 15ean
36 urte. Zorionak!
Lagunak.



Ane Barragan
Apirilaren 10ean
5 urte. Zorionak!
Familiakoak
eta Jon.



Unai Agirre
Maiatzaren 14an
12 urte. Zorionak!
Familiakoak.



Peio Markos
Maiatzaren 9an
32 urte. Zorionak!
Polideportiboko
ikasleak.



Arantxa Beraza
Apirilaren 22an
47 urte. Berandu
baina zorionak!
Polideportibokoak.



Jone Arregi
Maiatzaren 10ean
15 urte. Zorionak!
Etxekoak.



Maialen Onraitia
Maiatzaren 8an
urtebete. Zorionak!
Gurasoak.



Andonio Etxezarreta
Maiatzaren 10ean
2 urte. Zorionak!
Familiakoak.



Mertxe Zubiaurre
Apirilaren 25ean
urtebetetzea.
Zorionak!
Bilobak.



Iñigo Almorza
Apirilaren 29an
22 urte. Zorionak!
Lagunak.



Edurne Arregi
Maiatzaren 5ean
21 urte. Zorionak!
Lagunak.




Sara Arieteleaniz
Maiatzaren 11n
25 urte. Zorionak!
Familiakoak.



Mari Karmen Eguren
Maiatzaren 8an
urtebetetzea.
Zorionak! Etxekoak.



Veronica Fortuna
Maiatzaren 16an
15 urte. Zorionak!
Familiakoak.



Ezequiel Fortuna
Maiatzaren 10ean
46 urte. Zorionak!
Familiakoak.



Nere Goñi
Maiatzaren 8an urte-
betetzea. Zorionak!
Amama, Bego, Josu,
Usue eta lagunak.



Ander Barruso
Maiatzaren 12an
6 urte. Zorionak!
Etxekoak.

hildakoak

BERGARA
Luisita Solsona Gallastegi
Apirilak 30, 74 urte.
Jose Aranburu Intxausti
Maiatzak 4, 82 urte.
Nanuel Tena Merino
Maiatzak 4, 84 urte.

ANTZUOLA
Juan Cruz Peña Kortabarria
Apirilak 30, 88 urte

jaiotakoak

BERGARA
Itsaso Igarza Gainza
Apirilak 24
Xabier Gurutz San Jose Ruiz
Maiatzak 3
Lorea Palacios Olamusu
Maiatzak 3

ANTZERKIA

► **Los Ulen** taldearen "Mana, mana" antzezlanak gaur 22:30etan Elorrion.

► **Takolo, Pirritx eta Porrotx** pailazoen "Makarroiak" ikuskizuna bihar zapatua Eibarko Unibertsitate Laboralean, 16:30etan eta 18:30etan.

MUSIKA

► **Jeff Dahl eta Nuevo Catecismo Catolico** gaur eguakitzak 22:00etan Elgoibarko Gaztetxean.

► **Come eta 6Nemen9** taldeak eguenean, hilak 14, Jam aretoan. 500 pezeta.

ERAKUSKETAK

► **Javier Garcia**ren margo erakusketa Nahikarin.

► **Manu Muniategiandi**koetxearen erakusketa Donostiako DV Galerian.

► **Pello Alberdiren** margo erakusketa Bilboko Berta Belaza galerian martitzenera arte, 11:00etatik 13:30etara eta 17:30etatik 21:00etara (zapatu arratsaldeetan itxita).

IKASTAROAK

► **Islada bideo tailerrak**

KONTZERTUA

Albert Pla

Noiz: gaur, eguakitzak, 22:30etan
Non: Jam aretoan
Sarrera: 1.200 PTA (aurrez), 1.500 takilan

Albert Pla kantautore katalanak "Veintegenarios en Alburquerque" bere bosgarren diskoa aurkeztuko du gaur gauean Jam aretoan. Aipatutako diskoa zentsuratuta egon da bi urte terdiz abestietako batean ("La dejo o no la dejo") goardia zibil bat eta terrorista baten arteko erlazioa azaltzen delako. Azkenean, joan zen irailean kaleratu zen diskoa, zuzeneko faltsuan grabatuta dagoelarik. Bertan 11 abesti biltzen dira, tartean "Marcelino Arroyo del Charco", "El camion de la basura", "El gallo Eduardo Montenegro" edota "Lola la loca". Era berean beste kantari batzuren bertsiok egin ditu Sabadelleko kantariak: Jeanette-ren "Soy rebelde" (Pla-k Bajo Ulloaren "Airbag" filmean abesten duena), Oriol Tranvi-aren

"Alboraya" eta Extremoduro taldearen "Pepe Botika". Bere aurreko lanetan bezala, ironiaz, sentsibilitatez eta letxe txarrez idatzitako abestiak dira eta umorea ere ageri da hainbat kantutan. Diskoaren grabazioarako hainbat lagun laguntza izan du, besteak beste, Robe Iniesta (Extremoduro), Manolo Kabezabolo, Fermin Muguruza, Pi de la Serra, Oriol Tramvia edota Joseba Tapia musikariak. Hala ere, gaur Bergaran bakarrik izango da Pla. Zuzeneko emanaldietan musika grabatuta eramaten du eta musikoak filmatuta agertzen dira pantailan, berak dioen moduan "freaks samarrak direlako".

Albert Plaren aurretik Benito Malasangre kantautorea izango da gaur Jameko eskenatokian. B



Albert Pla, kantautore katalandarra gaur, eguakitzak, Jam aretoan.

Mitxel Gaztanbidek ("Vacas") emango duen gidoilaritza ikastaroa (50 ordu) iragarri du uztailaren 6tik uztailaren 21erako (goizez 9:30etatik 13:30etara). Matrikulak 15.000 pezeta balio du. Bestalde, edizio ikastaroa

izango da urriaren 23tik azaroaren 27ra. Argibideak Kultur Etxeko bideogelan.

► **Saltsa eta merenge** ikastaroak Jam aretoan, astelehen eta ostegunetan 19:30etatik 20:30etara. Argibideak: 76 35 81.

LEHIAKETAK

► **Kirol Argazkien VIII. Lehiaketa**, Euskadin bizituen edozein afizionaturerentzat. Lanak ekainaren 16an arte jasoko dira Kirol Zerbitzuan. 77 91 67.

ARGI PLASTIC

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa... Leihoak, ateak, manparak...



Eskatzen ezazu aurrekontua konpromezu barik

Erakusketa: Masterreka 14 behea BERGARA
Tf.: 76 55 02 Faxa: 943 77 11 30

INFERNUKUA TABERNA

Masterreka 23 ☎ 943 76 18 49

ZUBIETA elektragintza

MOTORREN BOBINAKETA,
ERA GUZTIETAKO
INSTALAKUNTZAK.

Kruz Gallastegi 2 behea
☎ 943 76 23 48

DEIAK

► **Odol ateraldia** izango da eguaztenean, hilak 13, 18:30etatik aurrera Seminarioko lokalean.

► **I. Igartza Literatur Sorkuntzako beka** idazle berrientzat. Baldintzak: 35 urte bete gabe izatea eta, lan argitaratuak izatekotan, bakarka bi liburu baino gehiago argitaratuak ez izatea. Proiektuak ekainaren 30a baino lehen bidali behar dira. Argibideak 88 90 94 telefonoan.

► **Drogomenpekotasun** prebentzioa lantzeko 15-17 urteko gazteen gurasoentzat Gizarte Ongizate Sailak antolatzen dituen saioen barruan, *Tocando el viento* filmea martitzenean, hilak 12, 18:30etan Novedadesen.

► **Rolling Stones** taldea ekainaren 18an San Mamesen ikusteko irteera antolatu du Jam-ek. Bidaia eta sarrera, 8.000 pezeta (7.500 Jam Klubeko bazkideentzat). 76 35 81.

► **Xipizaro ludotekak** antolatutako udalekuetan parte hartu nahi duten haurrentzat izena emateko epea maiatzaren 16ra arte zabalik. 76 23 76.

► **Jose Mari Etxanizen** aldeko plataformaren bilera astelehenean, hilak 11, 20:00etan Pol-Poleko areto-

an. Herritar guztiak daude gonbidatuta.

► **San Joxepek** La Perla bainuetxera joateko autobusa antolatu du maiatzaren 11, 13, 15, 18, 20 eta 22 egunetarako. 12.000 pezeta. Era berean, ekainaren 8tik 11ra Asturiasen egonaldia antolatu da. 19.900 pezeta. Argibideak eta izen-ematea Jubilatuetan, 76 21 40 telefonoan

► **87 urte** betetzen dituzten bergarrei omenaldia domekan: 11:30etan meza izango da Santa Marinan eta jarraian aureskua eta Jubilatuen abesbatzaren emanaldia San Joxepen. Bukatzeko, omendutakoiei opariak banatuko zaizkie.

KINTADAK

► **1963an** jaiotakoek bazkaria maiatzaren 16an Antxonin. Izen-ematea Ariznoa eta Kortazar tabernetan astelehena baino lehen.

► **1952an** jaiotakoek afaria maiatzaren 16an Tartufon. Gaueko 9etan Frontoian bilduko dira eta joan-etorria autobusez egingo da. Izen-ematea Gracian mertzerian, Azkarate estankoa edo Biltki altzaritan.

► **1953an** jaiotakoek bazkaria uztailaren 4an, Antxonin. Izen-ematea Antxonin bertan.

Z I N E A

KARTELDEGIA

BERGARA. Novedades
El indomable Will Hunting

Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:15.
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30.

Un ratoncito duro de roer

Zapatua: 17:00, 19:30.
Domeka: 17:00.

L.A. Confidential

Eguena, zine-kluba: 20:00.

ARRASATE. Alai zinema**Torrente, el brazo tonto de la ley**

Eguakitza: 22:00.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:00, 21:30.
Martitzena: 19:00, 21:00.

EIBAR. Unzaga**U.S. Marshals**

Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15.

EIBAR. Rialto**Gattaca**

Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15.

ONATI. Santana**Gattaca**

Eguakitza: 22:30.
Astelehena: 19:30.

ELORRIO. Arriola**Amistad**

Eguakitza: 22:30.
Domeka: 20:00

Astelehena: 20:00.

Megasonikoak

Domeka: 17:00.

The addiction

Eguena, zine-kluba: 20:15.

EL INDOMABLE WILL HUNTING

Zuzendaria: Gus Van Sant.

Aktoreak: Robbin Williams, Matt Damon eta Ben Affleck.

Will Hunting gazteak ohizkoa baino gaitasun intelektual handiagoa dauka.

Sekulako oroimena eta matematikarako trebezia azaltzen du. Ezagutuko duen maisu eta terapeuta batekin oso harreman berezia sortuko da... Oscarretarako bederatziz izendapen izan zituen.

UN RATONCITO DURO DE ROER

Zuzendaria: Gore Verbinski.

Aktoreak: Nathan Lane, Lee Evans, Christopher Walken.

Hil aurretik, bere bi semeei familiaren lantegia ez saltzeko aginduko die *Smuntz* zaharrak. Baina aitak zorrik besterik ez dizkie laga. Egoera honetan balio handia duen etxea saltzeko behar-eragongo dira. Baina etxeko sagutxoek aurre egin beharko diete lehenbizi...


L.A. CONFIDENTIAL

Zuzendaria: Curtis Hanson.

Aktoreak: Kevin Spacey, Kim Basinger eta Russell Crowe.

James Ellroy idazlearen nobelan oinarritutako filme honetan egindako lanagatik Kim Basinger-ek ere bere lehen Oscarra irabazi zuen. 1950eko hamarkadako Hollywood-en girotuta, *Vinceness* polizia zineko izarren kontrako borrorik ekingo dio, korrupzio sare batean murgilduko delarik.

BERRIGARAK ez du gerta litekeen emanaldi aldaketen erantzukizunik.

ARRANO

Taberna
Kruz Gallastegi BERGARA



GAZTELU

BURDINAKI DENDA

Mintegi 1 • Tf. 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8 ☎ 943 76 15 09

Pello Zabala Arantzazuko frailea eta Euskadi Irratiko eguraldi gizona dena hizlari izan genuen aurreko astean Jubilatuetan. Eguraldi kontuek jendeartean pizten duten interesa medio, aretoa jendez gainezka egon zen. Zabalaren hitzetan, "hain gauza sinplea izanik, kuriosoa da eguraldiak zenbateko oihartzuna duen".

G. Egunotako eguraldia normala al da?

E. Oso normala da hiru hilabete tipo batekoak izatea eta beste hiru hilabete beste tipo batekoak. Justu tenporek markatzen duten epeekin ari naiz; lehenago edo beranduago euria egingo du. Horrelakoak beste urte batzuetan ere izan dira. Joan zen urtean negua eta udaberria oso onak izan ziren eta San Juanetan, egunik luzeenak, txarrenak eta hotzenak izan ziren. Udaberria hemen askotan izan da hotz samarra eta euri dextekoa.

G. Klima asko aldatu da azken urteotan?

E. Asko ez, gutxi aldatu da. Klimak koskak izaten ditu eta azken zortzi urteetatik lautuan neguak subeagoak izan ditugu. Hori niretzako susmagarriagoa da, negu hauek ez dira normalak. Dena den, nahiz eta neguan beroago egin eta udan hotzago, tenperaturen mailan eta ur mailan ezin dugu esan klima aldatu denik.

G. "El niño" fenomenoaren eragina aipatzen da behin eta berriz...

E. Pentsatzen dut "El niño" hori lehendik ere egongo zela; Ameriketara gertatzen denean, hurrengo urtean Espainian eragina izaten du eta hor ditugu Andaluzian edota Extremaduran izandako euri jasak. "El ni-

PELLO ZABALA

Euskadi Irratiko eguraldi gizona

"Tenporekin fidatzen naiz; gertatzen da oso zaila dela ondorioak ateratzea"



Pello Zabala Jubilatuetako bolatokian, eguazteneko hitzaldiaren ostean.

ño" horrek guregan zuzenki eragin txarra behintzat ez dut uste izan duenik; Espainian uholdeak badaude, hemen euri gutxiago eta eguraldi suabegoa daukagu.

Bestalde, neguak suabegoak izateko arrazoiak beste batzuk izan daitezke. Errusian adibidez, ikaragarriko kanalak egin dituzte iparretik behera ura ekar-

"Errusiako kanalizazioaren ondorioz, masa polarra txikiagoa da. Antizikloiak gorago dabilta eta neguan eguraldi hobea dugu hemen"

tzeko eta hori egitean, ur hotza faltako da goian eta itsasoko ura (beroagoa) joango da zoko horiek betetzera. Ondorioz, ipar polotako izotz handi horiek urtutzen ari dira eta han klima piskat aldatu da ur hotza falta delako. Klima hori aldatzean, beroago egotean, hango aire masa, masa polar hotza, ez da lehen bezain txapel handia; eta hori txikiagoa izatean, antizikloiak gorago dabilta eta neguan eguraldi ona tokatzen zaigu.

G. Uda zelakoa izango da aurten?

E. Tenporak ikusi behar. Ekainaren lehen astean diru eta orduan ausartuko gara zerbaite esaten. Predikzioerarako ez dago inolako aurrerailurik. Neurgailu guztiak puntuan zer dagoen jakiteko dira eta bildutako datu guztiarekin (nazioartekoak tartean) pronostikoa egitea arriskatzen dira, mapak interpretatuz. Nik egiten dutena beste edonork egin bezalaxe mapak ikusita hartzen saiatuko balitz ni saiatu nintzen beste. Tenporek ez dute gute balio egun zehatzeko esateko. Luzera datorrenaren pista ematen dizute; fidatzen naiz 12 bat urtean hortantxe nabilelako. Gertatzen da ez dagoela urte bateko hurrengokoarekin alderatzerik; zaila da ondorioak ateratzea.

G. Eguraldi gizona izango da, zelako egunak atsegu zaizkizu?

E. Segun zertarako; pronostikatzeke, antizikloien bidez, dudarik gabe, mapak begiratu beharrik ez dago ikusteko eta bizitzeko, berriaz, ekaitz giroa atsegin da hodei formazio ikaragarriak ematen direlako. Orain, pake-pakean egoteko, laino inguratuta egotea atsegin da. Eguzkitan egotea ez da hainbeste gustatzen... B



MIGUEL ALTUNA ETA IPINTZA INSTITUTUAK BERGARAKO HEZKUNTZA PUBLIKOA

1998/99 ikasturterako HEZKUNTZA-ESKAINTZA

DBH

D.B.H.ko
1.go ZIKLOA

1. Maila: (12-13 urtekoentzat)
2. Maila: (13-14 urtekoentzat)

D.B.H.ko
2. ZIKLOA
BBB eta IEEren ordezkoa

3. Maila: (14-15 urtekoentzat)
4. Maila: (15-16 urtekoentzat)

BBB edo IEE bukatu duten ikasleentzat

ERDI MAILAKO ZIKLO
FORMATIBOAK

- Administrazio kudeaketa
- Mekanizazioa
- Ekipo eta instalazio elektroteknikoak

H.S.A.O.L BATXILERGOAK

- Teknologikoa
- Giza eta Gizarte Zientziak
- Natur eta Osasun zientziak

Batxilergoa burutu duten ikasleentzat

GOI MAILAKO ZIKLO
FORMATIBOAK

- Administrazio eta Finantzak
- Proiektu mekanikoen garapena
- Erregulazio eta kontrol sistema automatikoak
- Fabrikazio Mekanikoa

AURREMATRIKULA EPEA ZABALIK MAIATZAREN 18ra ARTE

Bi Institutuetan goizeko 9etatik-14etara

Helbideak:

MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA:

Ibargarai 1.

Tf: 943 76 24 91 / 943 76 38 40

IPINTZA INSTITUTUA:

Boni Laskurain 19.

Tf: 943 76 31 42 / 943 76 31 43

Norberaren gaitasun eta nahien arabera egokitutako ibilbideak.

Behar diren baliabideekin

Bide eta ate guztiak zabaltzen dituen Ikasketak.

Eskola publikoa: integratzailea eta anitza

Berri gehiago nahi baduzu deitu gure telefonoetara eta gure eskaintzari buruzko azalpenak emango dizkizugu.



Barrakariak 4 milioi eta erdi pezeta inguru ordainduko dizkiote Udalari lurzoru publikoa erabiltzeagatik.

Barraketan buelta bat ematea 150 pezeta kostako da jaietan Haurren egunean, astelehenean, bueltako 75 pezeta

Bergarako jaietan barraketan buelta bat ematearren 150 pezeta ordaindu beharko da eta haurren egunean, astelehenean, 75 pezeta kostako da. Bestalde, Bergarako Udalak 4.587.490 pezeta kobratuko dizkie barrakariari Beheko Estazioko zoruaren alokairuarengatik.

Barrakarien elkarteak bi proposamen egin zizkion Bergarako Udalari Pazkue-tako barrakak jartzeko. Alde

batetik, alokairua ez kobratzekotan, buelta bakoitzeko 125 pezeta eta haurren egunean bueltako 50 pezeta kobratzea proposatzen zuten. Horretaz gain, jaietan haurrentzako bi gaztelu puzgarri ipintzeko konpromezua hartuko zukeen.

Bestalde, Udalak iazko kopuru bera kobratuz gero, hau da, 4.497.539 pezeta, prezioa librea izango litzateke eta umeen egunean 125 pezeta kostako litzateke

bueltako, eta jaietan megafoniatik musika ipiniko luke.

Gobernu batzordeak, baina, alokairuaren prezioa finkatuta zeukan aurtengo udal aurrekontuetan eta, honenbestez, 4.587.490 pezeta kobratuko dizkie barrakariari, iaz baino %2 gehiago. Esan dezagun, azkenik, aurtengo Pazkue-tako jaien aurrekontua 11 milioi pezetakoa dela eta egitaraua prest dagoela. B

Kirol medikuntza zerbitzua jartzeko deialdi berria egingo da

Bergaran eta Oñatin

kirol medikuntza zerbitzuak jartzeko Deba Garaiko Mankomunitatearen deitutako lehiaketan ez da eskaririk aurkeztu. Udal Kirol Zerbitzua adierazi dutenez, eskaririk aurkeztu ez izanaren arrazoiak ekonomikoki dira: Mankomunitatearen prezio merkeak nahi ditu eta enpresek, interes agertu arren, ez dute zerbitzuari errentagarritasunik ikusten. Horregatik, lehiaketa berria deituko da hurrengo egunotan eta, oraindik ez da prezio zehatzik eskatuko; beraz, bakoitzak nahi duen prezioa jarri ahal izango da lehiaketan.

Mankomunitatearen asmoa kirol medikuntza zerbitzua udan martxoan jartzea da. Bergarako Udal Biltegiko gela batean kokatuko da eta kirola egiten duen edozeinek erabili ahal izango du, federatuta egon edo ez egon. Ohizko azterketak medikuak eta kirolari bakoitzari egokitu-tako diagnostiko eta programa zehatzak eskainiko dira. B

CAMACHO
Drogeria Usaindegia
Bidekurutzeta 24 BERGARA
☎ 943 76 13 35

ARTISAUTZAKO IZOKIA
GOYO-TOKI
D. Inola, 3 - Tf. 761235
Maldonado, 34 - Tf. 762337
BERGARA

KONDE PANADEROKUA

Burdinate 1
☎ 943 76 02 57

 **DEBA GARAIA**
INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA
Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telesforo Aranzadi 2 behean
943 76 21 80 / 943 76 06 37

Gaur sinatzekoa zen Irala zinearen hitzarmena jabeen eta Udalaren artean

Herri Batasunak kritikak egin dizkio hitzarmen berriari

Bergarako Udalak eta Irala zinearen jabeek gaur sinatzekotan ziren Irala zegoen orubeetan garajeak, lokal komertzialak eta etxeak egiteko hitzarmen berria.

Gaur, eguakitza, eguerdian egitekoa zen Plenon hitzarmena onartuko zuen Udalbatzak. Herri Batasunak hitzarmena kritikatu du, orain dela bi urte sinatu zen lehen hitzarmenaren kontra azaldu zen moduan.

Lehenengo hitzarmen hura ez zuen bete Espectaculos Bergara S.A. enpresak eta zinea bota zutenetik, 1996ko urria, obrak geldi egon dira. Egoera bideratzeko asmoz hitzarmen berria sinatuko dute bi aldeek.

Hitzarmenean jasotzen denez, Espectaculos Bergara S.A. enpresak 18 milioi pezeta ordaindu beharko dizkio Udalari dagokion hirigintzako probetxamenduaren %15a erosteko eta erabilera aldaketaren ondorioz sortzen den gainbalio kontzeptuaren ordainketa moduan. 6 milioi pezeta Udalak obra baimena ematen duenean eta beste 12 milioiak eraikinaren lehen

erabilpeneko baimena eman ondoren.

Irala zinea zegoen orubeetan garajeak, lokal komertzialak eta etxebizitzak (bi pisu) eraikiko dira; edifizio berriak, lehengo zinearen lerrokadura eta altuera berberak izan beharko ditu. Bestalde, 1997ko otsailaren 1etik gaur arte zor diren legezko interesen ordain gisa, Espectaculos Bergara S.A. enpresak konpromisua har-

tzen du Simon Arrieta eta Kruz Gallastegi artean dagoen gunea erabilera publikorako zeditzeko; pasabidea zabaldu eta egokitze behar diren obrak eta argiteria publikoa bere kontura egiteko konpromisua hartzen du Espectaculos Bergara S.A.k. Horretaz gain, alboko etxearen fatxadetan, hau da, Irizar 2ko lehen eta bigarren solairuetan, leihoak ireki ahal izango dira.

Hitzarmena sinatzen denetik hiru hialbeteren buruan eraikitze proiektua aurkeztu beharko du Espectaculos Bergara S.A.k. 10 hila bete pasa ondoren, proiekturik aurkeztuko ez balitz Bergarako Udalak orubearen jabetza kenduko lioke Espectaculos Bergara S.A.ri, orubearen balioaren (60 milioi pezeta inguru) erdia ordainduz.

HBko zinegotziak gaur egitekoa zen Plenora ezin izango zirela joan adierazi zion Jesus Mari Garitanok BERRIGARARI eguastenean. Garitano haserre agertu da kontu honen inguruan hirigintza batzordean ez delako aztertu eta batzordean gaia eztabaidatu barik Plenora eraman delako. "Alkateak behin eta berriz errepikatzen du gai guztiak batzordean eztabaidatzen direla, baina orain demostratu da hori gezurra dela" esan zion BERRIGARARI. Bestalde, Iralaren kontuan Udalak izan duen jokabidea kritikatu zuen: "Irizar eta Quemadak ez dute hasierako hitzarmena bete, nahi izan duten guztia egin dute eta udal gobernua hori onartu egin die" esan zuen. B



Aurten hasi beharko dituzte obrak Irala zinea zegoen orubeetan.

GURIA
Taberna

Bidekurutzeta 5
☎ 943 76 20 34

Biko
BOKATEGIA

Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerre.
Tf. 943 76 71 19

Deco-Textil
ZANGITU

Exterako lantzeria
Alfonbra nazionalak eta ekialdekoak
Bisiloak, tapizak, eta abar.

Herrilagunak 3-5
☎ 943 76 08 69

Sugoi

ERLOJUAK, ARTIKULO
ELEKTRONIKOAK,
KALKULADORAK...

Irizar pasealekua 2 behea
☎ 943 76 59 54 BERGARA

Berrigara

322 zenbakia.
1998ko maiatzaren 8a.

Errotalde Jauregia, 20570 Bergara
Telefonoa: 943 76 03 97.
Faxa: 943 76 29 77
E.mail: berrigar@sendanet.es
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Eneko Azkarate.
Erredakzioa: Edu Mendibil, Aitziber Azkondo. **Maketazioa:** Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Kristina Romero.
Harpidetzatzailea: Gorka Elortza. **Testuen zuzenketak:** Estepan Plazaola, Alex Labaien. **Erredakzio kontseilua:** Miguel Angel Elkorobereibar, Alex Labaien, Gorka Elortza. **Komikiak:** Bittor Rodríguez, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Alex Ugalde, Unai Azkarate.
Kolaboratzaileak: Juan Martin Elexpuru, Josu Okina, Luis Mari Agirre, Imanol Sorondo.
Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop. Elk. (Zubillaga, Oñati).

Azaleko argazkia: Imágenes.

Tirada: 5.100 ale.

Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Bergarako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jaurlaritzako Kultura saila

gutunak

Ezer adierazi nahi baduzu, ekarri edo bidali iezaguzu zure gutuna. Postaz edo eskuan Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara. Faxez: 943 76 29 77. Posta elektronikoz: berrigar@sendanet.es (Gutunak identifikatu egin behar dira).

KALEAN ABANDONATUTA LAGATZEN DIREN KOTXEAK

Joan zen asteko Berrigaran irakurri nuenez, Udaltzaingoak orain dela hiru urte laga zion abandonatutako kotxeak erretiratzeari. Ez dakit orain nork izango duen horren ardura baina kontua da kotxe bat baino gehiago abandonatuta dagoela herriko kaleetan. Jon Mujikak ere bere kexa azaldu zuen BERRIGARAKO 319. zenbakian, San Pedroko burrierian erroberak zulatuta dituen Seat Panda gorri bat aspalditik bertan aparkatuta, mugitzeke dagoela salatuz. Eta ez da kasu bakarra izango ziurrenik.

Joan zen asteko BERRIGARAN jasotzen den moduan, herri barruan aparkalekua topatzea gero eta nekezagoa bilakatu da eta, beraz, hori hobetzeko beharrezko neurriak hartu beharko lirarteke. Horien artean, kalean lagata dauden kotxeak erretiratzea derrigorrezkoa dela uste dut. Udaltzaingoak ez

badu lan hori egiten, gutxienez kotxeen jabeek abisua pasatzea ez legoke gaizki. Ahal den neurrian, behintzat, aparkalekuen kontua hobetuko litzateke horrela. Bestalde, uste dut, norberak bere kotxea kalean lagatzea ez dela oso zuzena; horretarako txatarreriak badaude eta. Dena erakundeen edo Udaltzainen eskuetan laga beharrean, norberak berari dagozkion ardurak hartu beharko litzuzke. Espero dut dagokionak kontutan hartuko duela nire proposamena.

Aitor Gantxegi

tira biraka: alex ugalde



■ atrebentzia ezpada

■ bai, esan!

Kotxea, herri barruan, behar baino gehiago erabiltzen duzula uste duzu?



Luis Jimenez

Benetan behar dudanean erabiltzen ahalegintzen naiz; egia esanda, herrian ondo moldatzen naiz kotxerik gabe. Uste dut kotxea gehiegi erabiltzen dela.



Rosario Belastegi

Lanerako Land-Roverren beharra daukat baina lanetik kanpo ahalegintzen naiz oinez ibiltzen. Egia da edozein tokitara kotxez joateko ohitu dela jendea.



Mikel Mujika

Nik lanerako bakarrik erabiltzen dut; ahal dudanean oinez joatea nahiago dut, aparkatzeko arazo asko izaten dira eta. Gutxiago erabili beharko litzateke kotxea.



Mari Jose Curado

Nik ez daukat kotxerik eta ondo moldatzen naiz. Dena den, inguruko arteen ikusten dut kotxea segituan hartzen dela. Ez dut uste hain beharrezkoa denik.



Guillermo Aretxaga

Beharrezkoa baino gehiago erabiltzen du jendeak. Ni orain ari naiz karneta ateratzen baina herrian ibiltzeko ez dut uste kotxea behar denik.



Josefina Sanchez

Etxean gizonak eta semeak erabiltzen dute eta egunero behar dute. Ni primeran ibiltzen naiz oinez, punta batetik bestera. Ez litzateke hainbeste erabili behar.



Gertaeraren bat salatu edo txalotu nahi baduzu, 943 76 03 97ra deitu eta sail honetan jasoko dugu zuk esana. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

BKEren futbol jarraitzaile batek deitu digu talde nagusiak egin duen denboraldi bikaina aitortu eta, preferente mailara igoera lortu izanagatik entrenatzailea eta jokalaria-riak zoriontzeko. Berak dioenez, iaz mailaz jaitsi zenean sekulako desilusia eta etsipena izan zituen, baina aurten erakutsitako nagusitasunarekin eta egindako jokoa-ekin oso pozik eta gustora geratu da. Bestalde, BKEko zuzendaritza batzordeak eta presidentek, kargua lagako dutela eta, herritarrek animatu nahi dituen elkartearen alde lan egiteko eta Enrike Nieto entrenatzaileari karguan jarraitzeko eskatu nahi dio, taldeak behar duelako.

■ ikuspuntua: **antonio zabala**

Filme berezia



Gaurko munduan, nahiz eta askotan komunikabideen eta teknologien gizartean bizi garena esan, gehienok ez gara arduratzen gure ingurutik kanpo gertatzen denaz. Bakoitzak gure mundu txikia sortzen dugu, gero eta murriztuagoa, eta ez gara hortik ateratzen. Horregatik, uste dut baduela bere garrantzia zinema munduan izan den estreinaldi bat aipatzea: John Saylesen "Hombres armados", filme berezia benetan.

Zuzendaria estatubatuarra bada ere, komertzialtasuna alde batera utziz, ertameri-

ketako indigenak jasaten ari diren zapalketa salatzen du eta kultur gutxiengoak errespetatzearen alde agertzen da. Gainera, filmek bere diskurtsoarekin leiala izan nahi du eta, horretarako, bertako aktoreak erabiltzen ditu eta hizkuntz bakar bat hitzegin ordez pertsonaia bakoitzak bere herriko hizkuntzari eusten dio; bai gaztelania, bai indigenen hizkuntzak.

Filmearen hasieran, urte dexenteko mediku hiritar batek bere oportetari oihanera

joatea erabakitzen du, berak prestatutako mediku gazte batzuk bertan barruratu zirelako eta horien berri jakin nahian. Medikuek oihaneke biztanleen egoera ez du ezagutzen (ez da bere mundua), filmearen ikusle gehiengoari gertatzen zaion bezala. Horrela, pertsonaiaren eta ikuslearen ikuspuntuek bat egiten dute, eta medikuaren erreakzioak benetan ulergarriak egiten zaizkigu; egiten duen bidaia, bidaia fisiko eta morala baita.

Dena den, Saylesen obra ez da panfletoan erortzen, erralitatea erakustez gain, filmearen aspektu artistikoa zaindu egiten du, istoriari kultur desberdinetan izaten diren ipuin magikoen kutsua emanez. **B**

JANTZIDENDAK

Casa Agirre. Bidekurutzeta 18.
Aroa. Bidekurutzeta 6.
Bergara Piel. Espoioia 6.
Cristina. Arruriaga z/g.
Gallastegi. San Pedro 15.
Ikus-Bi. Irala 5.
Janden. Irizar 3.
Laket. Barrenkalea 35.
Lide. Bidekurutzeta 19.
Mujika jostundegia. Barrenkalea 1.
Prakak. Burdiñate 1.
Siaska. San Pedro 10.
Subijai. Irizar 1.
Yazki Ume. Irizar 3.
Yazki gazte. Ibargarai 8.
Zatoia. Barrenkalea 4.
Zubikua. Barrenkalea 24.




KIROLAK

Aisor. Bidekurutzeta 7.
Jauja. Irizar 3.
Xamartin. Ibargarai 20.




OSTALARITZA

Irrintzi. Irala 3.
Miner banatzailea. Matxiategi 23.
Larrañaga banatzailea. Martoko 3.
Agirrebeña. Ibarra 2.
Antxoni. Fraiskozuri 4.
Ariznoa. Irala 1.
Arrano. Kruz Gallastegi.
Avenida. Fraiskozuri 6.
Azpeitxi. Aranerrekka 13.
Canalejas. San Antonio 6.
La casa del pueblo. Bidekurutzeta 23.
Deportivo. Bidekurutzeta 3.
Dixula. Barrenkalea 32.
Etxagi. Masterrekka 8.
Erreki. Fraiskozuri 3.
Euskalduna. Osintxu.
Ganbara. Irala z/g.
Gaspar. Barrenkalea 31.
Guria. Bidekurutzeta 5.
Infernukua. Masterrekka 23.
Kaixo. Zurradero 4.
Kortazar. Barrenkalea 16.
Lasa. Ozaeta jauregia.
Maxim's. Simon Arrieta 5.
Nahikari. Masterrekka 20.
Oilagorra. Barrenkalea 21.
Osintxu erretegia. Osintxu 24.
Pol-Pol. Komenio kalea z/g.
Sirimiri. Barrenkalea 3.
Tartufo. San Juan auzoa z/g.
Txuringo. Osintxu 14.
Usoa. Irala z/g.
Zabala. Ibarra z/g.
Zer-Nai. Telesforo Aranzadi 4.
Ziripot. Bidekurutzeta 11.
Zumelaga. San Antonio 5.
Igerilekuetako taberna. Agorrosin z/g.




HARATEGIAK

Lazpiur J. Komenio 2.
Leturia J.L. Artekalea 5.
Leturia J.M. San Pedro 24.
Rezola L. M. Matxiategi 7.
Urzelai P. Ibargarai 7.
Zurutuza J. M. Urteaga 9.
Igarza J.J. Irizar 3.
Imaz S. Aranerrekka 1.
Mugertza. Mugertza 12.
Leturia I. Zubiaurre 23.



ZERBITZUAK

Ecuador bidaiak. Arruriaga 10.
Bel bidaiak. Zurradero 4.
Carasa, Cilveti, Lacort y Cia. Fleming doktorea 1.
Lagun Aro. Ramon Maria Lili 6.
Zurich. Irala z/g.
Grupo A4 aholkularitza. Artekalea 16.




Har ez San Pankro

MAIATZAREN 12AN HEMEN D


OIHALAK

Anezka. Espoioia 8.
Artazi. Katabia z/g.
Casa Ugalde. Bidekurutzeta 13.
Edel tapizdenda. Bidekurutzeta 14.
Fernandez. Ibargarai 2.
Gaston y Daniela. Kruz Gallastegi 3.
Maher. Bidekurutzeta 29.
Aranzabal. Zubieta 32.



JANARIDENDAK

Aldi-Irala. Irizar 3.
Erosle Mazorriaga. San Pedro 21.
Hurbil dietetika. Aranzadi 2.
Itxas Eder arrandegia. Mintegi 5.
Izadi dietetika. Zurradero 2.
Kabutzia arraindegia. Fraiskozuri 6.
Larrañaga gozotegia. San Pedro 9.
Goxo-Toki gozotegia. Irala 3.
Laskurain janaridenda. Artekalea 4.
Mari Karmen arraindegia. Kruz Gallastegi.
Mujika gozotegia. Artekalea 3.
Zapaterikua janaridenda. Joan XXIII.a plaza.
Txukun. Fraiskozuri 6.



BURDINDEGIAK - BRIKOLAKETA



Gaztelu burdindegia. Mintegi 1.
Gisasola burdindegia. San Pedro 8.
Mujika burdindegia. Bidekurutzeta 8.
Ardatza brikolaketa. Masterreka 4.

ELEKTRAGAILUAK

Biltoki. Barrenkalea 6.
Herran. Matxiategi 3.
Radio Bergara. San Pedro 25.
Santos RTV. Masterreka 2.
Telkar. Ibargarai 2.
Zaiazko. Aranzadi 3.
Jakina. Amillaga 10.



zu parte egunean!

DIREN

IZIO ETA TABERNETAN


BAILE BAT

DUZUE ZUEN EROSKETETAN.




PERFUMERIAK

Amaia. Barrenkalea 25.
Alga. Ibargarai 10.
Camacho. Bidekurutzeta 24.
Egiluz. Irizar 3.
Gojara. Irala 3.
Igaro. Barrenkalea 35.



ALTZARIAK, DEKORAZIOA

Biltoki. San Martin Agirre plaza 2.
Edertu. Barrenkalea 23.
Guridi. Artekalea 8.
Iraurgi. Kruz Gallastegi 7.
Rementeria. Artekalea 6.
Rincones. D.Irala z/g.
Kilika. Barrenkalea 18.
Kanela. Espoloia 10.




OPTIKAK - BITXITEGIAK - ARGAZKIAK

Manso optika. Irizar 2.
Argazki. Barrenkalea 16.
Foto Sistema. Ibargarai.
Kiñu. Barrenkalea 35.
Arantza bitxitegia. Barrenkalea 4.
Etxeberria bitxitegia. Bidekurutzeta 16.




PAPERDENDAK - TINDATEGIAK - BESTE

Elkar. Arruriaga 1.
Idatzi. Barrenkalea 14.
Ikasle. Fleming doktorea 11.
Marcó. Bidekurutzeta 44.
Akort. Mugertza 7.
Jolas. Barrenkalea 27.
Onena tindategia. Barrenkalea 29.
Renteri tindategia. Ikerleku 4.




LOREAK ETA PENTSUAK

Ninika. Ramon Maria Lili 3.
Lislore. Barrenkalea 28.
Ibarguren pentsuak. San Pedro 3.
Narbaiza pentsuak. Masterreka 22.



MERTZERIAK - LENTZERIAK

Gantxegi. Aranzadi 2.
Gracian Agirre. Bidekurutzeta 6.
Igarza. Irala 5.
Itziar. Matxiategi 1.
Juana elgetarra. Zubieta 28.
Mirari. Martoko 32.
Nerea. Simon Arrieta 1.
Phildar. Irala 5.



OINETAKOAK ETA POLTSAK

Agirrebeña. Urteaga 5.
Aldasoro. Espoloia 4.
Carmen Garate. Bidekurutzeta 15.
Egizabal. Bidekurutzeta 13.
Galarreta. Irizar 2.
Garnish. San Pedro 12.
Lazkano. Barrenkalea 15.
Lonbide. Bidekurutzeta 5.
Retegi. San Pedro 18.
Yoar. Barrenkalea 9.



■ asteko menua

Solomo betea

OSAGAIAK

(Solomo bete bakoitzeko)

- 2 solomo-xerra fresko
- 2 gazta-xerra
- 2 urdaiazpiko-xerra fin
- 2 york-xerra fin
- Bexamela: irina, arrautza, ogi birrina
- Guarnizioa: patatak eta piper berdeak.

PRESTAKETA

- Urdaiazpiko, gazta eta york-arekin liburutxo moduko egin eta bexameletan batu. Ondoren, hozten laga.
- Bi solomo-xerren artean aurretik egin dugun "liburutxo" ipini.
- Guztia, irin, arrautza eta ogi birrinetan pasa.
- Zartagin batean olio berotzen jarri eta bero dagoenean gorritu arte frijitu "liburutxoak".
- Plater batean piper berde eta patatekin atera.

■ adituen esanetan

Depresioa

JOSE RAMON FERNANDEZ, *psikologoa*

Depresioa edozein urte sasoitan eta edozein egoeratan ager daiteke; mila arrazoi egon daitezke tartean. Gure bizitzan izaten diren aldaketek (positibok barne) depresioa ekar dezakete atzetik. Norberaren izaerak eta sistema kognitiboak zeresan handia dauka horretan. Depresiorako joera dutenek euren burua gutxiesten dute eta etorkizunak ezer onik ekarriko ez dietela uste dute eta, nolabait esateko, pentsatzeko modua aldatzen lagundu behar zaie; gauza positiboetan zentratu eta gauzei benetako garrantzia eman diezaieten, egoeren analisi errealistagoa egin dezaten.

Lehen atseginak zitzaizkigun jarduerak berreskuratzen baditugu (lagunekin egon, musika entzun, irakurketa...) eta ahalik eta aktibitate gehienetan (ikastaroetan esate baterako) parte hartzen badugu hobeto sentituko gara. Animo eskasarekin bagaude, kosta egingo zaigu hasieran, baina piskanaka graduatuz joango gara. Horretarako oso ondo etorriko da jardueren ordutegi bat egin eta betetzen joatea eta oso inportantea da jendearekin kontaktoa ez galtzea. Bestalde, "hau egin behar dut", "beste hori egin beharko nukeen" eta horrelakoak, ahal den neurrian, saihestu behar dira. **B**



FLORITA TXINTXURRETA
Mekolalde jatetxeko sukaldaria

■ bergarako gordailutik

UHOLDEAK

Imanol Sorondo

Behin baino gehiagotan gertatu izan dira uholdeak Bergaran; bakoitzaren ondoren, bihotz ukituaren ondorioz agian, beti esan izan da azkenen izan dela haundiena. Hala ere, aurrekoei begirada bat bota ondoren, ziuurrenik haundiena 1834.ekoa, San Martzial egunekoa, izango zen. Santamainako Elizan oraindik mantentzen da urak noraino igo ziren adierazten duen arrastoa; bertan sartu eta eskumako hormari jarraituz, korupearen hasieran aldarea baino lehenago, han ikusten da arrastoa; elizkizunak Monja Zaharretan egitea behartuak gelditu ziren.



Urak 47 etxe eraman zituen, San Antonio eta Osintxuko ermitak tartean, eta ibai aldera zeuden Zubietako etxe denak. Matxiategi, Leizaria eta Ibarbeltzeko (Ibratz) haranak eta gainerako ibar ederrak, gari eta arto ugariz betetakoak, zeharo deseginak. Zubiak lur jota, bideak porrotatuak, errota gehienak aienatuak eta, zoritxar haundi horiekin batera, San Kristobal, Goianzo eta Basalgotako auzoak harriak jo zituen.

24 hil ziren itota, horietatik 6 santamainatarrak, gehienak Zubietakoak, eta beraien gorputzak Deba ibaian zehar, itsasoraino, nonahi topatu zituzten. Deba ibaiak, Antzuolatik datorrenarekin eta mendietatik jaisten diren errekekin bat eginda, aurrean harrapatutako dena hondatu zuen. **B**

kontuola

KONTUOLA, Idolaz elkarte, ANTZUOLA. Kazetaria: Marijo Deogracias **Erredakzio kontseilua:** Miren Anduaga, Gotzon Iparragirre, Patxi Kortabarria, Jone Larrañaga **Testuen zuzenketak:** Maripi Laskurain, Lierni Legorburu **Telefonoa eta faxa:** 76 65 08, Herri ikastetxea.

Antzuolako hamabostekaria, 16 zenbakia. 1998ko maiatzaren 8a.

Osasun zentroaren sarrera aldatuko da

Udalak arrapala bat ezartzea erabaki du zentrorako sarrera errazteko

Joan den asteko **Gobernu Batzordean** osasun zentrorako arrapala edo ranpa egitea onartu zen. Erabaki horrekin gaur egun jendeak zentrorra iristeko dituen arazoak saihestu nahi dira. Kotxez edo anbulantziak iristeko aukera eskainiko du egingo den arrapalak.

Antzuolar asko dira sendagilearengana joateko arazoak dituztenak. Kontsultategia egin zenean, ez zen kontutan izan bertara iristeko jarri zen eskaileraren arazoa. Ordutik, batek baino gehiagok arazoak izan ditu medikuarengana joan denean. Hanka apurtuta dutenek, ume txikiekin dihoazen gurasoak, jende nagusia... guztiek planteiatu dituzte kexak sendagilearengana joan behar izan direnetan. Azkenean Udalak eskaileraren arazoa konpontzea erabaki du. Joan den apirilaren 21ean egin zen **Gobernu Batzordean**, eskaileraren ordez arrapala bat egitea erabaki zuten. Osasuna eta Gizarte-Ongizatea batzordearen ustez "kontutan izan behar da oraingo osasun zentroaren egoera ona dela. Arazoa bertara iristeko bidean dago". Batzordearen arabera "arrapala eginez gero, autoak ateraino iritsiko direla ziurtatu beharra dago".

Diru laguntza eskatuko da

Osakidetzak honelako lanak egin ahal izateko aukera eskaini du. Hori dela eta, Udalak dirulaguntza eskatuko du "osasun zentrorako sarbidearen arazoaren konponketa azterlana egiteko" azkenengo **Gobernu Batzordean** erabaki zutenez.



Arrapala egingo dute oraingo eskaileraren ordez.

ZER DERITZOSU ZENTROKO SARRERARI BURUZ?



Kontxi Anduaga

Gaztiendako oso ondo darella uste dot baiña eskillarak bastante pendiente dare eta behin edade batera ailllegau ezkeru, danak dauke zeozu.



Pilar Etxaniz

Zentroa beheko solairuan egon beharko litzateke sarbidea zuzena izan dadin. Nire ustez, bestelako konponketak bitartekoak baino ez lirateke izango.



Anabella Delgado

Beste nonbaitetik izan beharko luke sarrera, errazagoa izan dadin; guri, agian, oraindik ez zaigu axola, baina zaharrentzako gaizki daude eskailerak.

Kalegoi ala Goenkale...



Jesus Mari Amasorrain

Zer gertatuko zatekeen Arraldeko Goenkaleren ordez ETBko gidoigileek Antzuolako Kalegoi aukeratuuko balute? Konpara ditza- gun biak:

Haurrak nahiko antzekoak dira; eskola, etxe-ko lanak, ligatzen saiatu, lagun zintzoenarekin haserretu, lehen zigarroroxoa eta zuritoxa izkutuan...

Gazteen artean, etxetik kanpo- ra ikasten duten estudiante tunan- teak; lan mundua nahiago duten zentzudunak; ardi beltza baino galduago ibili ondoren bere burua zen- tratzea lortu dutenak; beti laguntze- ko prest dagoen makarra erromanti- ko txima luzeduna; drogan sarturiko pijo edo makarra kaskarmotzak; urrutitik etorri eta bertako bihurtu di- renak... Ez al dira antzuolarron pa- re-parekoak? Helduen artean: biko- te egonkorak, ezegonkorak; gura- so zentzudunak, zentzugabeak; en- presariak, medikua, apaiza, postar- ia, tabernaria, kultur etxeko ardura- duna (Antzuolan liburuzaina), etxe- koandrea eta nola ez, txutxumutxu- ka dabilen mari putzila (kotila).

Piramidearen puntan Gregorio, basoko haritz zahar maitea.

Barsobiari Sobia deitzen diote- nez, Kalegoi telesaioan Gaztetxea Tetxea litzateke. Hala ere, bi hutsu- ne nabarmen ageri dira: hotela eta putetxea. ETBkoek zertxobait aldatu beharko lukete, Goenkaleren ordez Kalegoi errodatzeko.

Eta portua? Horra Deskarga.

San Isidro Urruñako ikastolaren alde

Maiatzaren 16an ospatuko da San Isidro eguna Antzuolan. Ganadu, barazki eta gaztaiez gain, Urruñako ikastolari buruzko hitzaldia ere izango da udaletxean. Herriko baserrietako produktuekin batera, Iparraldekoenak ere egongo dira salgai pilotalekuan.

Barazkiak, fruituak, gaztaiak eta ganadua izango dira nagusi datorren aste-ko ferian. Pilotalekuan izango den erakusketan, herriko nekazari eta baserri- rrekin batera, Iparraldeko nekazarien produktuak ikusteko eta erosteko aukera ere egongo da. Horretaz gain, taloa eta txorizoa egitekotan ere badira zen- bait antzuolar. Jasotzen duten dirua Urruñako ikastolaren alde izango da.

Egun horretan bertan banatuko dira kukumarro lehiaketako sariak. Haur, gazte eta helduentzat antolatu den lehiaketara aurkezteko epea maiatzaren 14an amaituko da.

Hitzaldia eskainiko dute Urruñakoek

Jai giroan ospatuko den San Isidro feriak elkartasuna adierazi nahi dio aurt- en Urruñako ikastolari. "1.000 harri be- har ditugu ikastola eraikitzeko" kanpa- naren barruan, Urruñako ikastolako zen- bait guraso eta irakaslek bertako ikasto- laren egoerari buruzko hitzaldia eskaini- ko dute larunbatean, eguerdi- 12:00etan. Udaletxean eskainiko duten hitzaldian, Urruñako ikastolaren alde an- tzuolarrek erositako harrien banaketa ere egongo dute.

Hitzaldi ostean, Urruñako txaranga- rekin kalejira egingo da Aiherra kalera- no. San Isidro egun hori aprobetxatuko du Udalak Aiherra kalea inauguratzeko. Herri bazkaria ere egingo da egun hor- tan eta ihauterietan dantzan aritu ziren antzuolarrak zerbait prestatzekotan dira eguna alaitzeko.



Aurten ere ganadua izango da San Isidrotan.

GOROSTI
Taberna

☎ 943 76 62 96
Zurrategi plaza ANTZUOLA

ANTZUOLA

Apainketak eta
isolamenduak
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA
Tf.: 943 72 30 05
Billegia: 943 78 70 40

EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tf.: 943 76 64 23



Bergararrak eta antzuolarrak elkarrekin, partidua hasi aurretik.

Antzuolako futbol talde nagusia arrisku bizian

Giroa eskasa izan bazen ere, jende dezente bildu zen joan den larunbatean Estalan jokatu zen derbya ikusteko. Norgehiagoka garrantzitsua zen antzuolarrentzat eta Bergara ligako txapelduna dela jakinda, neurketa erraza izango zela uste zuten antzuolarrek. Hala ere, kanpotarrek garaipena nahi zuten eta ez zizkieten gauzak erraztu. Bergararrek saso onean daudela erakutsi zuten. Lehenengo zatian markagailua kanpokoen aldekoa zen, 1 eta 2. Bigarren zatian, neurketa berdindu zuten antzuolarrek, baina berehala, penaltia etorri zen antzuolarren kalterako. Azkenean 2 eta 4 galdu zuten etxekoek eta bergararrak, ligako txapeldun direla baieztatu zuten. Xabier Barkero eta Oskar Azkarate izan ziren Antzuolakoen golegileak.

Errejonaleko lehen mailan mantentzeko arazoak dituzte antzuolarrek. Asteburu honetan jokatu duten norgehiagoka irabazi beharko dute, bigarren mailara jaitsi nahi ez badute. Eibarko Urki

taldearen aurka arituko dira asteburuan. Hala ere, Lasarte-Oria eta Urola taldeek egiten dutena erabakiorra izan daiteke antzuolarrentzat.

Afaria partidu ostean

Ohitura denez, derbya jokatzen den bakoitzean afaria egiten dute Antzuola eta Bergarako jokalariek. Joan den larunbatean ere elkarrekin afaldu zuten bergararrak eta antzuolarrek. Bertakoak ez zeuden umorez, baina azkenean kiroltasuna nagusitu zen eta jai giroan pasa zuten gaua.

Sarriegi taldea

Eguaztenean, maiatzak 13, bilera egingo dute Iker Sarriegiren taldeko kideek. Dagoeneko 90 lagunek eman dute izena taldeko kide izateko. Bileran lehendakaria eta juntakideak aurkeztuko dituzte 19:00etan.

Balkoi eta lore ederren lehiaketa

Hirugarren urtez egingo den balkoi eta lore ederren lehiaketan hartuko dute parte etxearen kanpoaldean lorak dituzten antzuolar guztiek. 15.000 PTAko bi sari banatuko dira, etxe zaharrak eta berriak bereiztuko baititu epaimahaiak. Sari banaketa San Juan bezperan egingo da, uztailaren 23an.

Diapositiba emanaldia

"Iparralde: Xiberuatik- Itsasora" izeneko diapositiba saioa eskainiko du Josu Eizagirik, maiatzaren 13an, eguakitzan, 19:30etan, zine aretoan.

Iparraldeko hauteskundeak mintzagai


Maiatzaren 14an, eguena, "Iparraldeko hauteskundeak eta emaitzak" izenburupean arituko dira Jean Michel Barbier eta Txomin Heguy Udaletxeo areto nagusian 19:30etan.

Pirinioetara irteera

Maiatzaren 23 eta 24an Pirinioetara joateko irteera antolatu du Arrolak. Izena ematea maiatzaren 18 eta 19an izango da, Arrolako lokalean 19:30etatik 20:30etara. Prezioa: 5.000 PTA (ikasle eta langabetuentzat 4.000). Zapatuan Lakartxela-Lakora zeharkaldia egingo dute mendigoizaleek eta domekan San Martin Harria-Auñamendi.

Udaleku irekiak

Uztailaren 1etik 14ra izango diren udaleku irekietarako begiraleentzako izen ematea zabalik dago jadanik. Euskalduna, antzuolarra eta 18 urte (edo gehiago) izatea eskatzen da. Interesatuak udaletxean eman dezakete izena.



Zabalo Iturgintza S.L.

Bidea eginez

Tailerra: Uzarraga bidea 10. Tf. 943 78 71 78

Erakusketa: Kalebarren 1. Tf. 943 78 71 79, Tf. eta F. 943 76 64 73

- Gasa
- Berogailuak
- Haize egokitua
- Enpresen mantenimendua
- Lurrin instalazioak

- Bero-urrezteak
- Bainugelak. Proiektuak momentuan egiten ditugu DIBaren bidez
- Birgaitze-espedienteak bideratzen ditugu

KALEGOI 19 ☎ 943 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

- Zoruen kutzilatua eta barnizaketa •

110 urteko historia bota dute Ankurkuarekin

Margarita Iturbe, Asensio Laskurain eta Patricia Lizarralderekin berbetan

Ankurkua bota zen apirilaren 6an. Patricia Lizarralderen ama zena izan zen Etxezarkura iritsi zen familia honetako lehenengo kidea. Dominika Estenagak hamalu urte zituen orduan eta bere aita eta anai-arrebekin etorri zen Antiguatik Etxezarkura orain dela 110 urte.

Etxe ondoko jolaslekua

Ankurkua gainean zeuden kanposantura igotzeko eskailerak. Asensio Laskurainek kontatu digunez "kanposantura igotzeko eskillaria zeguan lekuan, estratia zeguan eta bixen bittartian erretkatua etortzen zan". Dirudienez, herriaren kanpo aldetik pasatzen den errepideea egin aurretik, Ankurkua inguruan so-

roa baino ez zegoen. Leku berdea omen zen eta pilotalekuko aurrealdearekin batera, inguruko kale-baserrietako haurrentzako jolastoki aproposa zen. "Orduan etzeguan jolastokirik eta paraje hori oso politta zan. Gure etxe inguruan zenbat ume ibilli ete zan" azaldu zigun Margarita Iturbek.

Hiletaren bat zegoenean, hurax izaten zen eskailerak igotzen hasi aurretik egiten zen azkenengo geldialdia. "Ankurko aurrian gelditzen zan entierria eta mahaixa etaratzen zan. Gero eskillarak igotzen zien eta han azkenengo lautada horretan *responsua* izeten zan. *Santi Espiritu* kalia horregaittik esaten jakon. Hildakua hortitxikan pasatzen zielako". Inguruko agureren batek jarri omen zion *Santi Espiritu* izena kale horri, baina Frontoi bideko bizilagunek, *Kantoi Kalia* izenez ezagutzen dute oraindik ere, pilotalekua eta Ankurkua izan zenaren arteko kalea.



Estenagatarrak kantoi-arteko etxera jaitsi zirenean etxearen izena Etxezarkua zen. Antiguatik, Matximenta izenez ezagutzen den etxetik, etorri ziren eta hark Ankurkua izena zuelako Etxezarkuari ere horrela deitu izan zaio orduetik. Asensio Laskurainek gogoratzen duenez, "harrezkero alaba zarrena ezkondu da etxera eta apellidua aldatzen jun da. Estenaga zien etorri zienak eta gero Arrandaittik Lizarralde etorri zan eta Iriartetik, Iturbe".

Garai hartan Ankurkuak beheko pisuan zuden etxebizitza. Sukaldea, orduko etxe gehienek bezala, lurrean bertan egina zegoen. Urteak pasa ahala Ankurkuak aldaketa asko izan ditu. 1901.ean kanposantu aldera gero zaltagia izan zena gehitu zioten eta Margarita Iturbe ezkondu zenean, Kalebarren aldera etxeari pisu bat gehitzeko lanak egin ziren. "Oin dala 65 bat urte egin zien etxea igotzeko lanak, eta habitaziñuak altuak egin zien argi gehixao sartzeko, pelotalekua altua zan eta. Gero pelotalekua itxitzera jun zientian, eguzkixa kendu zotzan eta baita plaza ikusteko aukeria be".

1901.ean kanposantu aldera gero zaltagia izan zena gehitu zioten



Ankurkua, Aiherra kaletik ikusita.


TXOMIN
garajea
Mekanika orokorra
Lizarragako hiribidea 8 ANTZUOLA
Tf. 943 78 70 77

GAILUR
taberna eta
gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tf. 943 78 70 32

KALEGOI 19 ☎ 943 76 64 07
Tomas Gezalaga
ANTZUOLA BERGARA
• Apainketarako eta industriarako pinturak •
• Paper margotuak •
• Mokatak eta tapizatuak •

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

Langtang Ranges

View from Nagarkot

NEPAL

Gorantziak Nepaletik

Joan den apirilaren 14an Nepalen fetxatutako postala iritsi zaigu aste honetan erredakziora. **Jon Lazkano** mendizaleak bidalitakoa da eta honela dio: "Kaixo Berrigarako lagun guztiori. Hortik zehar dena ondo joatea espero dut. Gu hemen gaude, mendiari begira.

Gaur apirilak 14 lehenengo kanpamendua montatu dugu 5.800 metroan. Besterik gabe, ikusi arte. Jon". Martxoaren bukaeran, **Juanjo San**

Sebastian, Jose Carlos Tamayo eta Iñurrategi anaiekin batera abiatu zen Jon Nepal aldera, TVEko "Al filo de lo imposible" saioak **Daulaghirira** (8.172 m.) antolatutako espedizioan parte hartzen ari direlarik. Daulaghiriko maldetan **Juanito Oiarzabal** arabarrak zuzentzen duen espedizioarekin elkartu dira. Egunotan bi espedizioak gailurrera heltzea espero da.

Ehoziri-lanen erakustaldia

Eva Conget bergararra saritua izan zen domekan Donostian antolatutako **ehoziri-lanen erakustaldian**. Hirugarren edizio honetan Estatu osoko 812 partaide bildu ziren (horien artean 4 gizon eta zenbait gaztetxo) eta **Ana Orgazen tailerreko emakumeak** ere bertan izan ziren. Goiz osoan zehar partaideek errezelak, toailak edota zapiak egiteko abilezia erakutsi zuten Donostiako Gipuzkoa plazan. Epaimahaiak bost lan onenak aukeratu zituen eta horien artean Eva Congetena saritu zuen. Sari modura, besteak beste, zilarrezko ehoziria eskuratu zuen Evak. Argazkian Eva Conget (eskuman) eta bere alboan **Idoia Ibañez** irakaslea domekako herri-bazkarian.



KARMELE GISASOLA


Erromeria aterpean

Osintxuko **Txurrunbilo, Kapirixo eta Atsedentxaboleta** elkarteetako lagunak antolatutako **Irukurutzeta erromeria**, eguraldi txarra medio, aterpean egin behar izan zen domekan. Antolatzailaiek orain hiru urte berreskuratu zuten aspaldiko ohitura baina aurten eguraldiarekin ez zuten suertetik izan. Hala ere, 60 bat lagun bildu ziren Atsedentxaboleta elkartera. **Bitoriano Gandiagak** meza eman zuen eta ondoren salda eta txorizoa banatu ziren. **Jo ta Su** trikitilarien erromeria elkartearen bertan egin zen euri zaparradaren erruz. Datorren urtean, aurretik, monja zaharrei arraultzak eraman behar...

Txekorketako kartela

Juan Jose Altuna margolari bergararrak irabazi du **Lehen Abdon Juaristi Pintura Lehiaketa** eta, beraz, bere lana izango da Pazkuetako txekorketa iragarriko duena. Lehiaketara 14 lan aurkeztu ziren eta **Zezenzaleak** zein **Beart** elkarteko ordezkariak Altuna saritzea erabaki zuten. Koadroan, lehen planoan dagoen barreraren ostetik, sei zezen ikus daitezke San Martin plazan. Collage eta teknika

mistoan egindako lana da eta Altunak 150.000 pezeta eta plaka oroigarria jasoko ditu. Gaurtik aurrera lehiaketara aurkeztutako lanen erakusketa ikusgai izango da Kultur Etxean.



Jaietarako musikala

Orkestra Sinfonikoak "Evita" eskainiko du Frontoian

Bergarako Orkestra Sinfonikoak "Evita" musikalaren selekzio bat aurkeztuko du maiatzaren 29an Bergarako Udal Pilotalekuan. Orkestartekin batera herriko 50 bat kantari eta rock talde bat ere izango dira eszenatokian eta, bakarlari modura, Mireia Osinaga ("Evita"ren paperean) eta Joxan Rodriguez ("Che") arituko dira kantuan. Atzo egin zen Orkestartaren azken lanaren aurkezpena.

Alfredo Gonzalez Chirlaqueren zuzendaritzapean, guztira 130 bat lagunek hartuko dute parte "Evita" filmearen musikan oinarritutako kontzertu honetan. Andrew Lloyd Weber konpositore ezagunak ("Jesucristo Superstar", "Cats" edota "El fantasma de la opera") eta Tim Rice idazleak ("El Rey Leon") 1976an grabatu zuten "Evita" musikala. 1978an Londonen estreinatu zen eta izugarritzko arrakasta izan zuen berehala. Handik urtebetera, Estatu Batuetara, Broadway-era iritsi zen eta "Tony" sarietan (antzerkiko "Oscarrrak" nolabait esateko) zazpi sari jaso zituen. Jarraian mundu guztira zabaldu zen "Evita" eta Madrilera 1980an heldu zen. Paloma San Basilio eta Patxi Andion izan ziren orduko protagonistak. Estatu Batuetan estreinatu zenetik hainbat ahalegin izan ziren "Evita" zinera eramateko baina azkenik Alan Parker zuzendariak errodatu zuen filmea 1996an, Madonna eta Antonio Banderas aktoreen partaidetzarekin.

Filme honetarako egin zen grabazioan oinarritu da, hain zuzen, Gonzalez Chirlaque partiturak ateratzeko. Bere hitzetan, "hasierako partitura da baina soinu berriak erabili zituzten Alan Parker-en filmean eta horretan oinarritu gara. Urrian hasi nintzen partiturak montatzen eta martxoan entsaiatzeari ekin genion. Alde batetik Orkestak entsaiatu du, bestetik lan honetan parte hartzen duen rock taldeari partiturak eman genizkion eta bakarlariak ere bere aldetik guztia memorizatu behar izan



dute. Lan handia izan da horrelako muntaia batek entsaiu ordu asko eskatzen dituelako. Datorren astetik aurrera abesbatzarekin hasiko gara entsaiatzen eta entsaiu orokorrak maiatzaren 27an eta 28an egingo ditugu, Frontoian bertan". Imanol Urzelaik zuzenduko duen Bergarako Abesbatza herriko koroetako jendearrekin osatu da eta rock-taldea, berri, honako hauek osatuko dute: Koldo Lizarralde eta Julen Narbaiza (kitarrak), Asier Elorza (baxua), Iñigo Alberdi (pianoa), Mikel Markiegi (teklatuak) eta Enrike Txurrukak (bateria).

Bi bakarlari

Kontzertuaren pisurik haundiena Mireia Osinaga eta Joxean Rodriguez

bakarlariak eramango dute. Aurretik Mireia Osinaga bergararrak "Miserableak" ikuskizunean hartu zuen parte eta Joxean Rodriguez legazpiarrak ere badaki zer den Orkestartekin batera abesatea, Orkestaren 10. urteurrena ospatzeko egindako "El Rey Leon"en primeran imitatu baitzuen Elton Johnen ahotsa. Oraingo honetan Osinagak Evitaren papera egingo du eta Rodriguezek Peron, Magaldi edota Che istorio honetako kronistaren ahotsak landuko ditu.

Musikal honetan 1946an Argentinako presidente izendatu zuten Juan Domingo Peron-en emaztearen istorioa kontatzen zaigu. Horrela, musikarekin batera, pieza bakoitza kokatzen duen testua irakurriko du Alberto Gorritiberrea kazetariak. Lana Maria Eva Duaren "Evita"ren heriotzarekin hasten da





Alboko argazkian Orkestako kideak Espoioian emandako kontzertu batean. Ezkerreko orrian, Maria Eva Duarte "Evita" eta Mireia Osinaga, bere papera egingo duen bakarlaria. Eskuman, berriz, Eva Duarte eta Juan Domingo Peron artxiboko argazki batean.

("Requiem for Evita"). Peronen emaztea 33 urte zituela hil zen minbiziak jota eta argentinarrek asko estimatu izan zuten, behartsuenganako sentsibilitatea erakutsi zuelako. Hiletetan bildutako jendetza ikusita ("Oh what a circus"), Che-k, "Evita"ren irudizko biografoak, emakume hark horrenbesteko maitasuna merezi ote zuen galdetuko dio bere buruari; horrela bere bizitza errepassatzen hasiko da. Chek ez du "Evita" oso ondo jarriko. Jatorri xumea zuen emakume honek, Magaldi kantariaren eskutik Buenos Aires hirira heldu ondoren, ahal duen guztia egingo du gizartearen klase altuetara iristeko. Peron presidenteordea ezagutu eta berarekin ezkondu eta gero, Arjentinako presidente izateko behar duen laguntza emango dio "Evita"k. Presidente berria-

ren izendapen egunean "Evita"k bere adiskideen txaloak jasoko ditu diskurtso sutsu batekin ("Don't cry for me Argentina"). Bere zeregina gizarte hobekuntzara bideratuko du baina gaisotasun larri bat jasan ondoren, bere bizitza azkarregi joan dela konturatuko da "Evita", heriotza gertuegi baitago ("Lament. Final"). Pieza honek ematen dio amaiera musikariari. Kantu guztiak ingelesez idatzitakoak dira, zenbaitzuk latinezko zatiak dituztelarik.

Hamabi pieza

Orkestako zuzendariak azaldu digunez, "protagonistaren bizitzarekin gertatzen den bezala, "crescendoan" garatzen den lana da hau eta barruko giro bat, intimoa sortzen dela esango

nuke. Musika sinfonikoa, sinfoniko-korala, opera-rocka eta folka (tango bat entzuteko aukera ere badago) musika ere tartekatzen dira. Aurreko lanen ondoren zerbait diferentea egin nahi genuen. Pieza musikal nagusiak aukeratu ditugu, 12 guztira, eta kontzertu polita izango dela uste dugu. Jaietako ostira-lean izatean, kanpoko jendea ere etorriko dela espero dugu". Orkestaren egoerari buruz ezer berririk ez dagoela adierazi digu zuzendariak; "Udalak oraindik ez du erabaki nondik jo eta beraz ez dakigu Orkesta Udalarena izatera pasako den ala taldea pribatizatuko dugun. Udalaren erabakiaren zai gaude oraingoz".

Kontzertura bueltatuz, emanaldiak bi zati izango ditu. Aurrenekoan Orkestak (musikariak jantzi berriak estreinatuko dituzte) Tchaikowsky-ren "El lago de los cisnes", Wesley-ren "Cuarteto nº 2 en Re" eta Miguel Gonzalez Bastidaren "Andaluziako estanpak" joko ditu eta jarraian "Evita" musikalaren selezioa etorriko da. Kontzertua ordu t' erdi ingurukoa izango da.

Nobedade modura, musikari eta abeslariak Pilotalekuko frontisean kokatuko dira eta kantxan 400 lagun inguruzko eserlekuak jarri nahi dira. Horrela, 1.400 bat lagun sartu ahal izango dira Frontoian. Udalak antolatuta, kontzertuak 900.000 pezeta inguruko aurrekontua dauka. Sarrerak 1.000 pezetan salgai daude Kultur Etxean, Lazkano oinetakodendan edota Ariznoa tabernan. B





Labegaraietako futbito txapelketa

partiduak

ZAPATUAN BARRUAN. PROMOZIOA

19:30: Bildurbarek Opel/Lam-Guadalest
Arb.: Antolaketa Batzordea

ZAPATUAN BARRUAN. PLAY-OFFAK

20:30: Artusamak-Pagomendi
Arb.: Antolaketa Batzordea

DOMEKAN BARRUAN. PLAY-OFFAK

11:00: Bar Canalejas-Errotagain
Arb.: Antolaketa Batzordea
16:00: A Ze Flaxa Etxagi-Manitou
Arb.: Antolaketa Batzordea
17:00: Mongatxurak-Shaktale
Arb.: Antolaketa Batzordea

NESKEN IV. FUTBITO TXAPELKETA

Zapatuan barruan

11:00: Gu Geu-The Road Island
Arb.: Antolaketa Batzordea

Domekan barruan

18:00: Nifis-The Road Island
Arb.: Antolaketa Batzordea
19:00: Potzu Ta Zapaburuak-Azkenak
Arb.: Antolaketa Batzordea

argi!

Play-Offak eta promozioa

Asteburuan Play-offetako eta promozioko partiduak jokatuko dira. Partiduak berdinketarekin amaituz gero, bost minutuko prorroga jokatuko da eta hau ere berdinketarekin amaituz gero, bosna penalti jaurtiko dituzte taldeek.

Beste jokalaririk bat zigortua

Ivan Garcia (Manitou), txapelketatik kanpo laga du Antolaketa Batzordeak, epaileari irainak egiteagatik eta epailehen mahaian modu txarrak erabiltzeagatik.

jokoz kanpo



Bittor Jimenez
A ZE FLAXA ETXAGI

- G.** Zer moduz amaitu duzue liga?
E. Lehen postuan.
G. Eta kopa?
E. Final erdietan kanporatu gaituzte.
G. Talde guztiek hoberenak zaretela diote.
E. Hoberenak ez, zaharrenak gara.
G. Zer nolako maila dago?
E. Talde onak daude. Selekzio bat eta guzti dago.
G. Jokalariak, arbitroa iraintzeagaitik txapelketatik kanporatzea zer iruditzen zaizu?
E. Askotan ahoa gehiegi zabaltzen dugu eta barkamena eskatzen ere ikasi behar da.
G. Txapelketako talderik onena?
E. Gu geu.
G. Eta jokalaririk onena?
E. Nere taldean, Patxi eta Luceño.
G. Zuen taldeko gauzarik onena?
E. Partiduak irabazten ditugula
G. Eta txarrena?
E. Batzuetan hamar urteko umeak ematen dugu eta hori konpondu beharra dago.
G. Zein postutan jokatzen duzu?
E. Normalean aurrealdean jokatzen dut, baina belauna lesionatuta dudanez, atezain nago.
G. Zein da Ligako jokalaririk onena?
E. Roberto Carlos eta Luis Enrique.
G. Nork irabaziko du mundiala?
E. Iranek.

gora eta behera



Manitou eta Mongatxurak

Joan zen astebukaeran jokatu ziren Kopako final laurdenak eta final erdiak. Neurketa guztiak oso parekatuak izan ziren eta partidu bikainak ikusi ziren. Finalerako sailkatu direnak, ordea, Mongatxurak eta Manitou izan dira; lehenengo talde historikoa dugu eta Manitou, berriz, txapelketako talderik onena, askoren iritziz. Gainera, astebukaera honetan hasiko diren Play-offetako faboritu nagusiak ditugu bi taldeak. Esan dezagun, Kopako eta Play-offetako finalak Pazkoetako jaien atarian jokatuko direla.



Jokalari zigortua

Azken asteetan hainbat jokalaririk zigortu ditu Antolaketa Batzordeak, epailea iraintzeagatik. Argi dago partidu erabakiorrak jokatu direla eta tentsio handia izaten dela kantxan. Halere, bere lana ahalik eta ondoan egin dezan, epailea pakean lagatzea eskatuko genieke jokalaririk arbitratzea ez baita lan erraz eta atsegina.

emaitzak

KOPA TXAPELKETA. FINAL LAURDENAK

A Ze Flaxa Etxagi -Artusamak	2-4
Mongatxurak -Etengabe	4-2
Manitou -Bayer	2-1
Azpeitxi -Jatetxea-Autoberezi	4-2

KOPA TXAPELKETA. FINAL ERDIAK

A Ze Flaxa Etxagi -Manitou	3-4
Mongatxurak -Azpeitxi Jatetxea	3-2

NESKEN IV. FUTBITO TXAPELKETA

Potzu Ta Zapaburuak-Blue Star	3-4
Nifis-Azkenak	17-1

PINTXO eta BOKADILOAK
SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g ☎ 943 76 07 92

Bolintxo
OKINDEGIA

domeketan zabalik
eta zapatu
arratsaldeetan 17:00etatik
20:30etara

Zurradero 2 behea Telefonoa 943 76 01 26

ONENA
TINTATEGIA

Barrenkalea 29 BERGARA

OILAGORRA
TABERNA

Barrenkalea 21 BERGARA


ESKOLA KIROLAK

IKUSI ETA IKASI

SASKIBALOA

Jokoa: saskibaloiborea 1

- Joko eremua: Saskibaloiborea pista.
- 6-10 jokalaridun bi talde.
- Materiala: Baloibatea.
- Azalpen praktikoa: Talde bakoitza, baloiaz, aurkakoa taldearen saskiko taula ikutzen saiatuko da.
- Berezitasunak: -Baloibate bote eragin gabe korrika egin daiteke.
- Baloia duen jokalaria, beste taldearen jokalaria batek ikutzen badu, berehala gelditu eta baloia pasatu edo taulara jaurti beharko du.
- Baloia duen jokalaria ezin zaio baloia eskutik kendu.
- Baloiaz aurkakoen taula ikutzen duen bakoitzean bi puntu lortuko dira.
- Puntu gehien lortzen duen taldeak irabaziko du.



TXINPARTAK

Los Chicos de Altuna

futbito finalean txapelidun

Eskola Kiroleko futbito finalean, Los Chicos de Altuna izan zen txapelidun, Aranzadi taldeari 6-4 irabazi ondoren. Bestalde, Gipuzkoako txapelketan sailkatzeko, kadete mutilek, 2. kanporaketa jokatu beharko dute Oñatikoen kontra.

Azkenik, badmintoneko jokalaria ere, Oñatira urbildu beharko dira, larunbatean goizeko 10etan, bailarako txapelketa jokatzera.



Aranzadi 202

Aranzadi 202 kadete mutilek taldea, Aitor Vicente, Aitor Lamariano, Markel Lazpiur, Ignacio Dobao eta Fernando Laskurainek osatzen dute. Futbola eta areto futboleko aritu izan dira jokatzeko. Gogokoen dituzten kirolak dira.

Une honetan, Bergaroko beste talde batzuekin batera, liga txiki bat jokatzeko dihardute eta sailkapenean laugarren postuan agertzen dira. Onenatariko talde bat direla diote. Bestalde, taldekide batzuk Bergara Kirol Elkartearen ere ari dira eta ligatik gustoko dituzten jokalaria, Aranzabal eta Figo dira.



Mariaren Lagundia

M. Lagundia kadete mailako taldea, Mikel Gallastegi, Aitor Blazquez, Mikel Alvarez, Iñaki Lazpiur, Aitor Laguna eta Zuhaitz Zubiak osatzen dute. Hainbat kirol atsegin arren, futboleko bakarrik aritu dira.

Jokatutako partiduetan fin ibili direla adierazi digute. Partidu guztiak gogo handiarekin jokatzeko dituzte eta taldekideen arteko giroa estimatzen dute guztiek. Erreal zale amorratuak dira eta txuri urdinak Europan izango direla zantzarik ez dute. Aranzabal eta De Pedro dira gehien atsegin dituzten jokalaria.

KARTELDEGIA

FUTBOLA

Alebinak/Neskek

Gipuzkoako txapelketa

San Bosko ikastetxean.

(Autobus geltokian, 17:15)

18:45: Telleria-Aranzadi 13

Infantilak/Neskek

Zapatuan, Ipintzan

08:45: Ipintza DBH-SF Xabier

08:45: Aranzadi-Elgeta

09:00: Txantxiku-M. Lagundia
(Oñati-Ibarran)

SASKIBALOA

Gipuzkoako txapelketako

final laurdenak, zapatuan.

Infantilak/Mutillak

09:00: Loliola-Aranzadi

Bidebietako kiroldegian.

Infantilak/Neskek

10:00: Torrebaso-Aranzadi

Almenen.

ESKUBALOA

Infantilak/Mutillak

Zapatuan, Labegarietan

10:00: Torrebaso-M. Lagundia

KIROL EGOKITUAK

• Saskibaloia gurrpil-aulkietan

• Boleibola jarrita

• Goal balla

• Boccia

Zapatuan, Aranzadi ikastolan

(Martinez Irala).

Alebinak/Benjaminak

09:30: 5. eta 6. mailakoak

11:30: 3. eta 4. mailakoak

Futbola



BKEko talde nagusiak errez irabazi zion Antzuolako taldeari domekan. Partidu ostean, Antzuolarrek afari paregabea eskeini zieten Nietoren mutilei. Jokalariek gau bikaina igaro zuten elkarrekin. Bestalde, ohorezko mailan dabilzan infantilek, partidu bikaina jokatu zuten berriz ere. Oraingoan 4-0 irabazi zuten Urolaren aurka. Zorionak!

Jubenilek berriz, galdu egin zuten. Hilaren 31n amaitzen dute liga eta hiru partidu gelditzen direnez, bosgarren edo seigarren postuan sailkatzea espero dute. Bigarren mailako jubenilek, aldiz, irabazi egin zuten Donostian, Baskoniarren kontra. Bigarren kadeteek eta neskek, ez zuten zorterik izan.

Eskubaloia



Iraundi Bergara eskubaloia taldeak, ez zuen joan zen astean partidurik izan. Aste honetan Lijoren mutilak Mutrikuren aurka jokatu beharko dute. Mutrikuarrak sailkapenaren atzealdean daude eta partidua irabazteko aukerak handiak dira. Hiru partiduren faltan, Lijorenak bosgarren sailkatuta daude.

Kadete taldeek, bai neskek eta baita mutilek ere, Arrate taldeen aurkako partiduak galdu egin zituzten. Bi taldeak hirugarren postuan daude eta jokatzeko bi partidu falta zaie. Jubenilak berriz, bi partidu jokatu zituzten aste bukaeran eta ez zuten zorte handirik izan. Orain arte jokatuak partidu guztiak galdu dituzte eta ondorioz azken postuan azaltzen dira.

Saskibaloia



Bolsos Bergara BKEko saskibaloia taldeak, denboraldia amaitu zuen joan zen astean, bederatzigarren postuan sailkatuz. Ramon Conde entrenatzaileak taldea lagatzea erabaki du.

Jubenilak, Beasainen aurkako partidua, lehen postuan sailkatzeko aukera bikaina izan arren, galdu egin zuten. Bi partiduen faltan, hirugarren postuan azaltzen dira, baina aurreko bi taldeekin puntutan berdinduta daude. Lehen postua eskuratzeko, gelditzen diren bi partiduak irabazi beharko lituzkete. Jubenil neskek galdu egin zuten berriz ere. Azken aurreko postuan daude. Kadeteek, berriz, irabazi egin zuten Iruenen eta sailkapenean postu bat igotzea lortu dute.

F. JAVIER RODRIGO, "PITI"/ Futbolaria "Badut taldea uzteko garaia"

BKEk omenaldia eskainiko dio Pitiri zapatuan IIintxaren aurkako partidua jokatu baino lehen. Ondoren afaria izango dute Antxonijatetxean.

- G.** Zenbat denbora BKEan?
E. Asko. Hamahiru urte nituela hasi nintzen, alebin taldean.
G. Zein da gogoratzen duzun denboraldirik onena?
E. Duela sei urte, Erregionaletik Preferentera igo genueneko urte hura. Promozioan, Roteta taldeari penaltietan irabazi genion. Sekulako jaia egin genuen.
G. Eta une aipagarriena?
E. Aipatuko nukeena, bizi izan dudana giro bikaina da. Urtero sekulako giroa egon da aldag-

letan. Lagun handiak egin ditut eta merezi izan du.

- G.** Bergararik kanpo aritzea gustatuko litzaizuke?
E. Ez. Kanpora joateak denbora eskazen du eta hemen gustora egon naizenez...
G. Zer iritzi duzu Bergarako jarraitzaileei buruz?
E. Asko jaitzi da, duela urte batzuk jende gehiago joaten zen partiduetara. Une honetan, jarraitzaile gehiago behar ditut taldeak.
G. Datorren denboraldian zer?
E. Lagatzea pentsatu dut. Bada garaia eta jende gaztea jokatzeko gogoz dagoenez... Bestalde, lana dela eta, ezin izaten dut entrenamendu guztieta joan eta hori asko igaritzen da. Elkartearekin

harremanetan jarraituko dut. Noizean behin entrenamenduetara joateko asmoa daukat.

- G.** Nola ikusten duzu Bergara Preferente mailan?
G. Oso ondo. Lan bikaina egin duela uste dut.
G. Nola ikusten duzu BKEren etorkizuna?
E. Beltza. Zuzendaritza utzi behar dute eta ez dakigu nor etorriko den.



KARTELDEGIA

FUTBOLA

- Bergara-IIintxa**
Lehen erregionala.
Zapatua. 15:00. Agorrosin.
Bergara-Lagun Onak
Ohorezko infantilak.
Zapatua. 11:30. Ipintza.
Bergara-Intxaurren
Neskak.
Zapatua. 15:30. Ipintza
Bergara-Orioko
Lehen mailako jubenila.
Domekan. 17:00. Ipintza.
Bergara-Telleri
Bigarren mailako jubenila.
Domekan. 11:30. Ipintza.
Bergara-Aurrera Ondarroa
Lehen mailako kadeteak.
Domekan. 15:30. Ipintza.
Bergara-Urnieta
Bigarren mailako kadeteak.
Domekan. 10:00. Ipintza.

ESKUBALOIA

- Bergara-Pulpo**
Kadete mutilak.
Zapatua. 16:30. Labegarieta.
Bergara-Pulpo
Kadete neskek.
Zapatua. 18:00. Labegarieta.

SASKIBALOIA

- Bergara-Iraurgi**
Jubenil neskek.
Zapatua. 17:30. M. Lagundia.
Bergara-Arrasate
Jubenil mutilak.
Domeka. 11:00. M. Lagundia.

PILOTA

- Profesionalak**
Domeka 16:30. Pilotalekua.
 • Alustiza eta Taberna-Etxaniz eta Galarza III
 • Tolosa III eta Nalda III-Errandonea eta Rai
 • Barberito VI eta Barriola-Tirapu eta Imaz
Bergara Hiria IV. Txapelketa. Final Erdiak
Martitzena. 19:30. Pilotalekua
 Promesak:
 • Uebera II eta Urberoa-Martin eta Baez.
 Seniorrak:
 • Apezetxea eta Txikito IX-Yañez eta Ruiz.
Eguena. 19:30. Pilotalekua
 Promesak:
 • Etxabe eta Bengoetxea-Leiza eta Zabala
 Seniorrak:
 • Urretabizkaia I eta Gasteiz-Otaegi eta Errasti



Joan zen urtean Oilagorrako taldea izan zen txapelkun.

Ipintzako futbol txapelketa

Neskek ere jokatzeko aukera izango dute

Bergarako Kirol Elkarteak, futbol txapelketa antolatu du, kirola bultzatzeko asmoz. Orain arte, txapelketa, mutilei zuzenduta zegoen bakarrik baina, aurten, neskek ere jokatzeko aukera izango dute.

1970-71 denboraldian, BKE zuzentzen zuen taldeak, Bergara eta inguruko herrietako jendeak parte hartu zezakeen txapelketa bat antolatzea pentsatu zuen. Jendearen erantzuna egokia zela eta, ia urtero antolatzen jarraitu da. Jose Luis Beitia izan zen aintzindarietako bat. "Lagun artean egiten den zerbait denez, jendeak oso estimatzen duela ueste dut. Batzuk urtean zehar, talde federatuetan ari dira eta honen bidez, kua-drillarekin jokatzeko aukera ere izaten dute".

Txapelketa, ekainaren 3an hasiko da Ipintza futbol

zelaian eta Bergara, Elgeta, Soraluze eta Antzuolakoek izango dute parte hartzeko aukera. Partiduak ekainean eta uztailan jokatu dira, aste barruan, arratsaldeko 19:30etatik aurrera. Talde asko apuntatu gero, partiduak aste bukaeretan jokatu beharko liriteke.

Nesketan, hamabi talde baino gehiago ez dira onartuko bakoitza zazpi jokalarirekin. Hamalau urtetik gorakoak izan beharko dira. Mutiletan, berriz, 20 talde eta hamasei urte baino gehiago izan beharko dute. Talde bakoitzak lau federatu onartuko ditu eta, zelaian hiru izango dira aldiko. Mutilek, 12.000 pezeta ordaindu beharko dute eta neskek 2.000. "Aurten nesken txapelketa antolatzea ere pentsatu dugu baina ez dakit partehartzaile asko izango diren. Arduratuta gaude eta une honetan batez ere, hori lantzen ari gara. Bestalde

txapelketa antolatzeak ez du arazo gehiegirik izaten. 8-10 lagun gaude antolaketa batzordean eta aurten lehenengo aldiz, neskek ere animatu dira".

Txapelketan parte hartu ahal izateko, taldeek ezauzgarri batzuk aurkeztu beharko dituzte; neskek, gutxienez 10 eta gehienez 13 jokalariren izen abizenak, eta mutilek gutxienez 14 eta gehienez 21enak, talde bakoitzeko ordezkariaren izen abizenak eta telefono zenbakia, eta azkenik, taldearen kamiseta kolorea. Guzti hau, maiatzaren 22an, arratsaldeko zazpiak baino lehen eraman beharko da Bergara Kirol Elkarte buzoira. Neskek, maiatzaren 25ean eta mutilak 26an, biak arratsaldeko zazpietan, Agorrosingo aldalekuetan bilera izango dute. Talde bakoitzeko ordezkarien presentzia derrogorrezkoa izango da. B

Ur jolasei buruzko ikastaroa

Deba Bailerako

euskara eta kirol zerbitzuek, kirola euskaraz programaren barruan, ur jolasei buruzko ikastaro praktikoa antolatu dute igeriketa monitore, irakasle eta aisialdirako monitoreentzat. Izene-matea maiatzaren hamalau baino lehen egin beharko da, Eibarko Ipurua kiroldegiko 943 20 32 40 telefonoan edota Oñatiko Zubikoa kiroldegiko 943716375 telefonoan. Ikastaroa maiatzaren 16, 23 eta 30ean izango da Eibarko Ipurua Kiroldegian eta prezioa Deba Bailerakoentzat 2.000 eta gainontze-koentzat 3.000 pezeta-koa da. Diru sarrerak egiteko, Arrasateko, Euskadiko Kutxaren 202.0.00057.8 kontu korrontean erabiltzea eskatzen da. B

Bergara Hiria: Muru kanporatua

Iker Muruamendi

final laurdenetan kanporatua izatean, Martin pilotaria da Bergara Hiria txapelketa jokatzen ari den bergarar bakarra. Martin final erdietara heldu da Baezekin batera eta Ubera-Uberoa bikoteari aurre egin beharko diote, maiatzaren 12an. Bestalde, antolaketa batzordea oso pozik azaldu da jendeak izan duen erantzunarekin. Jende asko gerturatzen da partiduak ikustera pilotalekura. B

1. ETXEBIZITZAK

Saldu

Pisu amueblatua salgai herri erdian. Deitu 76 06 64 telefonora.

Pisua salgai Donostian. 76 31 79.

Barrenkalean apartamentua salgai. 76 56 41/76 04 69.

Pisu amueblatua salgai Martokoa. Deitu 76 46 70 telefonora.

Pisu amueblatua salgai Antzuolan. Deitu 76 60 41 telefonora.

Pisua salgai Zabalotegi dorrean. 76 33 93.

Pisua salgai Aranerren. 76 51 54.

Errentan hartzeko

Pisua hartuko nuke alokairuan. 76 47 50 (Jabi).

Errentan emateko

Pisua alokairuan Alcoceberren. 76 59 05.

Duplexa alokairuan. Zarautzen uztailean eta abutzuan. Deitu 83 56 36 telefonora.

Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, eguazten eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

1. ETXEBIZITZAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

2. GARAJEAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

3. LOKALAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

4. LANA

Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA

Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

6. AUTOAK/MOTOAK

Saldu
Erosi
Bestelakoak

7. ANIMALIAK

Saldu
Erosi
Bestelakoak

8. DENETARIK

Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

9. HARREMANAK

Agurrak
Kontaktuak
Deiak
Bestelakoak

2. GARAJEAK

Saldu

Garajea salgai Bolun. 76 47 99.

Garajea salgai Masterrekan. 78 36 65.

Garajea salgai Aranerren (2 plaza itxita). 76 06 96.

Garajea salgai Ibargarain. 76 57 93.

Garajea Torrekuan. 950.000 PTA. 76 19 72.

Garajea salgai Zurradeon. 76 02 89.

Garajea saltzen da Ibargarain. 15 15 81.

Garajea salgai. Deitu 76 40 03 telefonora.

Errentan emateko

Garaje bikoitza alokairuan Torrekuan. Deitu 76 30 32 telefonora.

Garajea alokairuan Ibargarain. 76 16 38.

Garajea alokairuan

Aranerrekan. 76 46 54.

Garajea alokairuan Poligonoan. Deitu 76 32 58 telefonora.

Errentan hartzeko

Garajea/ganbara alokatuko genuke. Deitu 76 50 00 telefonora.

Garajea alokatuko nuke. 76 05 17.

Burdiñate inguruan garajea errentan hartuko nuke. Deitu 76 70 63 telefonora.

3. LOKALAK

Saldu

Lokala salgai edo alokairuan Masterrekan. 150m². Deitu 76 11 89 telefonora.

Lokala salgai A. Flemingean. 76 00 84/76 35 83.

Lokal komertziala salgai Martokon. Deitu 76 25 67 telefonora.

Taberna bat salgai edo alokairuan Antzuolan. 76 60 16.

Errentan emateko

Lau gelako bulegoa alokairuan Bolun (osorik edo gelaka). 76 58 91.

San Lorentzoko industrialdean 200 m²ko lokala alokairuan. 76 35 09.

Santa Marinaran 64 m²ko lokala alokairuan. 76 27 75.

4. LANA

Eskaintzak

Andre batek zaharrak zaindu edo etxeko garbiketarak egingo lituzke. 76 00 90.

Neska batek astebukeretan helduak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. 76 56 66.

Klinika laguntzaileak gaisoak edo helduak zaintzen ditu. 76 64 47.

Emakume batek astebukaera eta jaieguneetan zaharrak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. 76 50 46.

Neska batek orduka lan egingo luke. Deitu 939 47 25 84 telefonora.

Haurrak zainduko

POL-POL
Taberna
☎ 943 76 07 78



LAGUN ARO
ASEGURUAK



AGENTEA-DELEGATUA

Iraegi Aseguruak

Ramon Maria Lili 6 behea 20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Telefonoak: 943 76 23 30 • 943 76 41 54 / Faxes: 943 76 41 54
ORDUTEGIA: Asteleheneetik ostiralera: 9.00-14.00 eta 16.00-20.00
Larunbatetan: 9.00-13.00

ARDATZA
Brikolaketa

Ateak eta zokaloak
Horma armairuak
Sarrailak eta manilak
Koadroen enmarkazioak
Era guztietako moldurak
Apalak
Kajoiak

Masterreka 4 behea
☎ 943 76 18 93

nituzke. 76 04 34.

Ordenagailuz lanak pasatzen ditut. 76 38 71 (Larraitz).

Eskaerak

Dendari laguntzailea behar da. Bidali datuak 178 PKra.

Neska euskalduna behar da haurrak zaindu eta etxeko lanetarako. 76 04 56.

Emakumea behar da etxeko lanak egiteko eta haurrak zaintzeko. 76 31 11.

Pertsona euskalduna behar dut umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 76 24 33.

Esperientziadun taberna-ria behar da. 76 47 23.

Astebukaeratarako esperientziadun taberna-ria behar da. 76 39 53.

5. IRAKASKUNTZA

Eskaintzak

OHO klaseak Antzuolan. 78 71 32.

Ingeles klaseak ematen ditut. 76 53 88 (Rosa).

OHO eta ingeles klaseak ematen ditut. 76 17 18 (Jesus).

Mate klaseak ematen ditut. 76 03 72 (Nerea).

Majisteritzako ikasle batek OHoko klaseak ematen ditu. 76 47 30 (Aitziber).

Fisika, informatika eta mate klaseak. Deitu 76 46 03 telefonora.

OHO eta BBB klaseak ematen dira. Deitu 76 33 26 telefonora.

Eskaerak

2. Batxilergo Teknikoko fisika klaseak hartuko nituzke. 76 39 15 (Jon).

2. DBHko mate klaseak hartuko nituzke. 76 13 11 (21:00etatik aurrera).

Ingeles klaseak hartuko genituzke. 76 50 54 (Iker).

6. AUTOAK/MOTOAK

Saldu

Golf TDI kotxea salgai. 76 64 70 (Mikel).

Citroen BX kotxea salgai. SS-U. 76 58 00.

Roller jet karabana salgai. 5 plaza. 76 44 05.

T.E.C. King karabana salgai. Lau plaza. 74 31 37.

Opel Corsa 1.200 salgai. 72.000 Km. 76 03 47 (gauetz).

Peugeot 309 SR salgai. 100.000 Km. 76 14 64.

Seat Ibiza (BI-BF), diesela, salgai. 76 09 12.

Erosi

Errepideko motorra (49 cc.) erosiko nuke. 76 39 19 (Aritz).

7. ANIMALIAK

Saldu

Hispaniel-breton txakurkumeak salgai. 907 93 72 71 (Pablo).

Setter txakurkumeak salgai. 76 53 92 (Javi).

Pit-bull txakurkumeak salgai. 79 37 17.

8. DENETARIK

Saldu

Ziklismoko oinetakoak

salgai. 76 01 31.

Super Nintendo kontsola salgai. 76 05 81.

Macintosh Centris 650 ordenagailua. Deitu 79 97 60 telefonora.

Mendiko bizikletak salgai. 76 49 39.

Idazmakina elektronikoa salgai. 76 10 63.

Kanpin denda familiarra salgai. 76 37 96.

Logela salgai: bi ohe txiki, muelle eta guzti. 76 57 05.

Kitarra elektronikoa eta amplifikadorea salgai. 76 34 31.

Bizikleta estatikoa saltzen da. 76 07 88.


Erosi

Akordeioa erosiko nuke. 76 57 03.

2. eskuko butanozko estufa katalitikoa erosiko nuke. Deitu 76 46 90 telefonora.

Galdu

Urrezko pultsera galdu dut. Sole izena eta 1934-9-29. 76 25 67.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua

KAMAREROA
Ibaizabal. 5629/3

MERKATARITZAKO HIRU AHOLKULARI
Bilbo. 6388/3

ILEAPAINZAILA, emakumea
Bilbo. 7920/2

ATSa
Bilbo. 8176/6

PUBLIKOAREN HARRERA- IKUSKATZAILA
Bilbo. 8355/2

PUBLIKOAREN HARRERA-AGENTEA
Bilbo area. 8357/1

ELEKTRONIKAKO INJINERU TEKNIKOA
Arabako Laut. 8309/1

ETXE BARRUAK DEKORATZEKO LANGILEA
Arabako Laut. 8203/5

KARROZERIAKO APRENDIZA
Araba. 8154/2

BANKETXE BULEGOKO BI GERENTE
Nafarroa. 7163/2

ANALISTA PROGRAMATZAILA
Madril. 8111/1

MEKANIKO AJUSTATZAILA
Bilbo (ALE). 8009/3

ILEAPAINZAILA
Bilbo. 7921/2

TORNEROA
Azkoitia. 7612/2

Lan eskaintza hauetakoren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.

LANGAI Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00etara.
Telefona: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

Usoa Pub



☎ 943 76 38 57
Irala 1

Francisco J. Lopez de Munain

Medikua, Medikuntza fisikoko eta Errehabilitazioko espezialista

KONSULTA ETA ERREHABILITAZORAKO TRATAMENDUKO ZENTRUA

Aseguru pribatuekiko hitzarmenak
Lagun Aro, Previa, Trafiko-istripuetakoak eta abar.

Fraiskozuri 8, 1-A. BERGARA. Tf. 943 76 71 74.

Bergara U Pair

IRLANDA, ESKOZIA, INGALATERRA, FRANTZIA, ESTATU BATUAK.
AU PAIR, TABERNARI, DENDARI...
ETA BESTE MILA LANPOSTU.
Telefona eta faxa: 943 76 26 06

MAHER Biltegiak L.E.

Oihal etxea

Bidekurutzeta 29
943 76 22 90 - 943 76 26 75



Gaspar

JATETXEA, TXOKOLATEGIA,
SELF-SERVICE-a

Barrenkalea 31

Tf. 943 76 20 02

BERGARA

BEHEKO TABERNA

Menestra eta konejua dira gure berezitasunak

ANGIOZAR Tf.: 943 76 55 74

Come eta 6Nemen9 taldeen emanaldia Jam-en

Datorren eguen gauean, talde bostondarra ikusteko aukera 500 pezetaren truke

Come talde bostondarrak eta 6Nemen9-ko elgoibartarrek kontzertua eskainiko dute Jam aretoan datorren eguenean, maiatzak 14. Taldeen kalitateaz gain, kontzertuak badauka berezitasun bat, hain zuzen ere, Udalaren laguntzaz antolatuta dela.

Unai, Kepa eta Jose Mari

Urtean zehar zenbait kontzertu egiteko dirulaguntza eman du Udalak eta datorren eguenean izango da lehena. Antolatzaileek, jaietan Bideberriko kontzertuetan egiten den bezala, kalitatezko taldeak ekartzen ahaleginduko dira; prezio merkean, bergarar guztien esku egon daitezten. Sarrerak 500 pezetan jarriko dira salgai; azpimarratzeko da Come taldeak Bergaraz gain, Estatuan Madrilan, Bartzelonan eta Kanarietan bakarrik joko dutela eta hauetan 1.800 pezeta ordaindu beharko dela.

Giran dauden kanpoko taldeak (kasu honetan *yankeeak*) edo Bergara aldean ikusteko hain errezak ez diren taldeak eskaintzeko asmoa daukate, ahal den neurrian, behintzat.

6Nemen9 taldearen "Pop-atik"

Kontzertua 6Nemen9 talde elgoibartarrak zabalduko du, bere azken grabazioa, "Pop-atik" aurkeztuz. Bi maketa kaleratu ondoren, beraien kontura Bilboko Little-Fish estudioan grabatu dute 11 kantuz osatutako CD hau. Oraingoan, aurreko grabazioetan baino soinua garbiagoekin datoz, orokorrean, egiten zaien kasua baino gehiago mezezi dutela erakutsiz.



Come taldeak Estatuan lau lekutan bakarrik joko du. Bostondarrak Bergaran izango dira eguenean.

Fort Apachetik Amillagara

"Gentry Down The Stream", Come taldearen laugarren diskoa dugu, Domino zigiluak pasa den otsailean argitaratu eta Fort Apachen (Boston) grabatua. Hau dugu taldearen lanik konplexuena. Geldotasun eta oldarkortasunaren erdibidean dabilzan kitarra bikoitzen sorta bizi eta zirrargarria, taldearen berezko ezaugarri bilakatu dena.

Thalia Zedek-ek eta Chris Brokaw-ek eratu zuten Come taldea hamarkada honen hasieran. Rock arriskutsu eta etsiaren gaur egungo lider erabatekoa, dagoeneko rock amerikarraren banda klasiko bihurtu dena.

"Eleven Eleven", 1992ko euren lehen diskoak Kurt Cobain, Bob Mould eta J. Mascisen kritika ezin hobeak jasozituen (Come Nirvanaren telonero gisa

aritu ziren kontzertu batzuetan Estatu Batuetan). Ondoren, lehen aldaketak izan ziren taldean eta "Don't ask don't tell" bareagoa ateratu zuten, bertan pianoa beste tresna guztien artean nabarmentzen zelarik. "Near Life Experience", euren hirugarren diskoak etengabehazi eta zabaltzen ziharduen talde batarazten zigun.

Batzuetan kabaretaren izpiritua gertuago ohiko rock taldearenetik baino eta, era berean, blues ikutu handiagobatez, nazioarteko panoramadan dabilzan taldeentzako erakusgarri.

Jack Kerouac-en omenaldian Johnny Deep-ekin elkarlanean aritu eta gero, beste erritmo basatiagobatekin grabatu dute azkenengo diskoa, bertan "Recidivist", "Saints around my neck", "March" edo "A jam blues"en tankerakanta puska apartak dituena. B

iletxo

ileapaindegi mistoa

BEGOÑA ARZELUS

A. Fleming 7 BERGARA
☎ 943 76 53 15



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Gerrari buruzko ekitaldiak

Ondo Bihurtu taldeak antolatuko ditu Pazkuetan

Gerra Zibilak Bergaran izan zuen eraginari buruz Ondo Bihurtu taldekoak Pazkuetarako prestatzen ari diren ekitaldiak ia prest daude. Jaien atarian, eguenean, erakusketak zabalduko da udaletxean eta ekainaren 10 eta 11n gerrari buruzko filmeak eskainiko dira.

Mikel eta Josuren Murgizu anaiek orain dela pare bat urte ekin zioten gaiaren inguruko materiala biltzeari; antzinako kontuak eta Gerra Zibilekoak, bereziki, betidanik interesatu zaizkie. Beste lagun batzuekin batera lanean aritu dira eta taldeari Ondo Bihurtu izena jarri diote, ideologia ezberdineko jendea biltzen zuen gerra aurreko herriko kuadrila baten izena hartuz. Taldeak, azken gerrateak Bergaran izan zuen eragina eta gerraren nondik norakoak aztertzen jardun du. Informazio bila, lekukoak elkarrizketatu eta hain-

bat artxibo eta liburutegi miatu dituzte.

"Gerra Zibila Bergaran. 1930-1936" izenburuko erakusketan, gerra denborarako hainbat argazki, agiri, material e.a. erakutsiko dira. Ondo Bihurtu taldekoek material ugari bildu dute eta erakusketan zati txiki bat besterik ez da erakutsiko. Hori dela eta, gaiaren inguruko liburu bat argitaratzea da taldearen asmoa.

Ondo Bihurtukoaren asmoa gerrari buruzko tabuak hautsi eta era objetibo batean, inor mindu barik, Gerra Zibilaren Bergaran gertatutakoa kontatzea da.

Bestalde, ekainaren 10 eta 11n Gerra Zibilari buruzko hiru pelikula eskainiko dira Novedades aretoan arratsaldeko 8etan. 10ean, FET y Jons-ek egindako "Frente de Vizcaya y 18 de julio" eta Helena Tabernaren "Alsasua 1936" pelikulak eskainiko dira. Hurrengo egunean, ostera, "La Vieja memoria", Jaime Caminorena emango da. B



Ondo Bihurtu, gerra aurreko kuadrila.

■ salduenak / apirila

LIBURUAK

Euskaraz

1. TENTAIZIOAK

Jasone Osoro. Elkarlanean

2. JOSKERA LANTEGI

Juan Gartzia. IVAP

3. GURE BARRIOA. 1975

Xabier Mendiguren. Elkarlanean

4. EUSKARA BATUAREN AJEAK

Ibon Sarasola. Alberdania

5. ZOZOAK BELEARI

Andoni Egaña-Jon Sarasua. Alberdania

Erdaraz

1. LAS CENIZAS DE ANGELA

Frank McCourt. Maeva

2. LISTA DE LOCOS Y OTROS ALFABETOS

Bernardo Atxaga. Siruela

3. BEATRIZ Y LOS CUERPOS CELESTES

Lucia Etxebarria. Ancora y Delfín

4. MAS ALLÁ DEL JARDÍN

Antonio Gala. Planeta

5. EL DIOS DE LAS PEQUEÑAS COSAS

A. Roy. Anagrama

Iturria: Etxepare-Bilintx, Peñalba eta Zangitu

DISKOAK

1. ARDI LARRUZ

Latzen

2. LA POLLA EN TU RECTO

La Polla

3. TITANIC

James Horner-en soinu banda

4. DOCTOR DESEO

Hay cuentos aún por inventar

5. EL JUEVES

Denetarik

6. BAD RELIGION

No substance

7. LUIS EDUARDO AUTE

Aire/Imposible

Iturria: Etxepare-Bilintx eta Zaiazko

ETXEPAÑE-BILINTX



LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12 ☎ 943 76 40 50 BERGARA



gizon & emakume

Barrenkalea 35 BERGARA

denborapasa / LUMA

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

Ezker eskuma

1. Betebarra. 2. Arrain-mota. Ilinioa. 3. Pisua. Uko egin, ezeztatu. 4. Beste ibai batera isurtzen den erreka edo ibaia. 5. Teilen azpian egokitu ohi den ohola. Nafarroako ibarra. 6. Sarrera. Okela. 7. Garen hauek. Errepikatuz, txori-mota. Ahuntzaren ar. 8. Usainak. Ba... baneuka. 9. Naizenn hau. Urtaro beroa. Gizon izena. 10. Araknido-mota. Begirada.


Goitik behera

1. Auzokoa. 2. Desagertarazia. 3. Barazki-mota. Röntgen. Lehenengoa. 4. Gaia. Seguru. 5. Modu atzikia. Bokala. Sakon. 6. Beste emakume baten haurari bularra ematen dion emakumea. Bokal errepikatua. 7. Zaborrak. Sufrea. 8. Uranioa. Ez emeak. Jipoitu. 9. Elementu kimiko ezaguna. 10. Sexu emea. Gipuzkoako hiria.

Soluzioa

10. Alvia. Irun.
9. Nitrogenoa.
8. U. Arrak. Jo.
7. Hondo. 6. Inudea. Aa.
6. Ekara. Ziur.
5. Ezabatutik.
4. Goitik behera.
3. A. Akaro. Soa.
2. U. Aker. 8. Urinak. Ku.
1. Ate. Haragi.
2. Ukatu. 4. Ibaia.
3. Izkina. 11.
Ezker eskuma

bonofotoa



Miguel Angel Elkorobereizbar



Zein da bi iturri hauen ondoan dagoen baserriaren izena?

Jari Bonofotoko eta Galde Debaldeko erantzunak behean eta asmatzen dituzuenon artean afari ederra zozketatuko du Berrigarak. Aste honetan irabazten duenak eta berak aukeratutako lagunak **Mekolalde** jatetxea izango dute afaria.



Aurreko aleko saria, **Arriet Umerezentzat** izan da: Leku-Berri merenderoan bi lagunendako afaria. Zorionak Arrieti! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Labegarieta, polikiroldegia**ren ondoan. Galde Debalde: **1-C, 2-C, 3-C**.

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: _____ 2: _____ 3: _____

Izena-deitura: _____ Telefonoa: _____

Ekarri edo bidali txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! AFARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

MEKOLALDE
Jatetxea

Mekolalde z/g
Telefonoa: 76 50 18

LH-1eko ikasketak burutu ondoren, berehala hasi zen tabernari lanetan Lucio Retana (34 urte). Etxagin eta Euxebion egon ondoren, azken 6 urteak Oilagorra tabernan eman ditu lanean. Kalea gehiago girotzea botatzen du faltan.

Lucio Retana

Zer behar da tabernari ona izateko?

Gogo piskat, besterik ez.

Tabernaria ez izatera, zer izatea gustatuko litzaizuke?

Ez dakit, ez dut aukeraterik izan.

Laneko gauzarik onena?

Giro ona dagoenean.

Eta txarrena?

Eztabaidak, iskanbilak...

Astebarrua ala astebukaera?

Astebukaera nahiago.

Barra barruan ala kanpoan?

Kanpoan.

Zela pasatzen dituzu ordu hilak?

Irakurtzen, musika entzuten...

Gustoko aldizkari bat?

Zientziazoak; "Enigma", "Mas alla"...

Zelako musika atsegin duzu?

Denetarik. Momentuaren arabera.

Badakizu tabernako prezioak eurotan?

Ez.

Karta joku bat?

Musa. Baina ez naiz oso kartazalea.

Billarra ala makina elektronikoak?

Billarra.

Jendeak gehiegi edaten du?

Jaietan-eta edaten da baina orokorrean ez.

Juergazalea zara?

Piskat.

Edari bat?

Whiskya eta ura.

Tabernak ala diskotekak?

Tabernak.

Cocktailak gertatzen badakizu?

Batzuk bai.

Eskatu dizuten gauzarik arraroena?

Kanario bat (kas laranja coca-colarekin).

Ajea kentzeko edari bat?

Ura.

Puntuatu Bergarako giroa.

Otik 10era, 7.

Zerbaiten falta somatzen duzu?

Kalea gehiago girotzea.

Zein ordutan itxi beharko

lirateke tabernak?

Berandu; goizeko 4ak ordu ona da.

Hobby bat?

Margotu eta tailatu.

Gustoko artista bat?

Dali.

Tatuaje bat egingo zenuke?

Txikitxo bat, beharbada...

Animaliarik baduzu etxean?

Bai, katu siames bat, "Mus".

Gustoko plater bat?

Solomilloa.

Jateko, ura ala ardoa?

Ardo beltza.

Zer kenduko zenuke mundutik?

Inbidia eta gorrotoa.

Nora egingo zenuke bidaia?

Hegoamerikara, nire lagunarekin. B



I
G
E
L
T
S
E
R
I
T
Z
A

BIAK, S.L.

I
G
E
L
T
S
E
R
I
T
Z
A

A. Fleming 5
BERGARA
Mobilak:
907 44 50 38
907 46 57 38

BUNKY

ume eta gazteentzako oinetakoetan aukera aparta
Chicco • Hamiltons • Babybotte • Chupetin • eta abar

Artekalea 29, BERGARA. Telefonoa: 943 76 72 21

LEGO WATCH SYSTEM

Orain zeure eskura Etxeberrian.
Bidekurutzeta 16 BERGARA. Tf. 943 76 23 94 - 943 76 12 65.

ETXEBERRIA erlojutegia

ARREGUI, E.M.

ARROZTEGIA

ARROZLAN MEKANIKOAK
SUKALDEKO ARMAIRUAK
HORMA ARMAIRUAK
ATEAK, eta abar
TARIMAK-PARKETAK
NEOPRENOZKO JUNTADUN
EGURREZKO LEIHOAK
PVCzko LEIHOAK

Urteaga 20 ☎ 943 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta 38



Taldeko afaria Sagarpen

Aste honetako erretratu zaharrea agertzen direnek ziur gogoan izango dutela herriko futbol txapelketa batean eskuratutako lehen kopa hura eta ondorengo ospakizuna. Argazkia orain dela 22 bat urtekoa da.

Jose Gorrotxategik, txapelketa irabaztekoan, Sagarpen afaria prestatuko ziela agindu zien eta "prima" horrek are eta gehiago motibatu zuen taldea. Azkenean bigarren postuarekin konformatu behar izan ziren arren, ospakizun afaria egin zuten Sagarpen.

Indarrak errekuiperatzeko ziur primeran afaldu zutela. Ezkerraldean ikus daitekeenez, txanpanarekin ere ospatu zuten, txapeldunek

moduan. Eta, nola ez, derrigorrezko argazki afal ostean. Kopa txikia izan arren, hor ditugu jokalariai trofeoa eutsi nahian. Ezkerretik eskumara hauek dira:

Goian: Iñigo Urrutia, Asier Linazisoro, Gerutz Linazisoro eta Martin Olabarria.

Beherago: Juan Luis Agirre, Karlos Gorrotxategi eta ezezaguna.

Zutik: Edu Muruamendiaraz, Juanjo Astibia, Xabier Mujika, Jose Ignacio Berraondo, Iñigo Azkarate, Ion Zalakain eta Aitor sanz.

Aurrean jarrita: Bixen Aiastui.

Argazkia: Jose Gorrotxategi

☎ 943 76 20 61

Zumelaga

JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA
PREZIOAN PAREKORIK EZ!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21

MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25

San Pankrazio egunean, maiatzak 12,
deskontua zure erosketetan:

% 10

Aldizkari honetako 2. orrialdean ageri diren jantzidendetan.



muebles

GRUPO **ARKAUZ**

**ERAKUSKETA
BERRIZTUA!**



**ALTZARI-DISEINUA
APAINKETA**

**ZAPATU
ARRATSALDEETAN
ZABALIK!**



Grupo Arkauzen denak dira abantailak.

Zatoz, eta daukaguna ikusi bezain laster etxera eraman nahi izango duzu.

Aprobetxa itzazu Grupo Arkauzen abantailak

ARETXABALETA

Araba Etorbidea 20 • Tf. eta Faxa: 943 79 23 51